

# Jerusalem

Xalimen hiria



Fito Rodriguez  
Utriusque Vasconiae  
Lehen argitaraldia: Donostian, 2008ko azaroa  
ISBN: 978-84-935757-8-6  
Lege-gordailua:  
Diseinua eta maketazioa: P.I.A  
Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu  
Azaleko argazkia: Rosa Estela  
  
UTRIUSQUE VASCONIAE – Ategorrieta  
Hiribidea, 3-3.  
20013 Donostia. Tel. 943-270433  
Iparraldean: 00335447640386  
  
Banatzailea: BITARTE – 31195 Berriozar  
(Nafarroa). Tel. 948-302239

*“Bazter itzazue alegoriak  
eta hutsak diren hipotesiak !  
Betiko galdera madarikatuei  
erantzun zuzenak emazkiezue”  
Heinrich Heine in “Zum Lazarus” (1853)*



## *HITZAURREA*

Hamaika ate dituen Xalimen hiria honi ate berri bat jartzeko eskaini dit Fito lagunak, eta nik, uros, baietz, atariko bat idatziko dizut, eta urriko goiz hotz eta siku honetan, institutura joan aitzin, Erreniegako haize erroten argi gorriak ikuskatzen ditudano, galderak bilatzen hasia naiz zakutoan ditudan erantzunendako, erantzun guztiendako posiblea ez bada ere.

Nor ote da zaintzan dabilen Artizarne hura, Xalimen hiriaren atez ate garamatzana, gizateriaren arazoetan arazoenetakoa eskolario bihur haiei aletzen diena? Nahiko nuke nerekako, institutuko zaintza gela itsusi horretan eman ohi ditugun ordu galdu guzti horietan, Artizarneren eraman handia, eta datozkidan ikasle irriberei, horren oldarkor hartu gabe, elkarbizitzaren lehenbiziko ikasgaia ematea, xaloki, lagunarte ederrean, solasean. Baina ikasleok palestinartuegi zaizkigu, intifadaka, irakasleok sionistartuegi gauden ber, harresika, eta gure arteko kalapitak bere horretan dirau,

betierekotzen, irakatsi nahi ez dugunon eta ikasi nahi ez dutenen arteko lehi antzuan, munduak mundu darraienu. Ez da erakusgarri makala Artizarnek berak ematen diguna erantzun borobilak ematen ez dakien irakaslea dela esaten digunean, eta ez litzateke abiapuntu txarra norberak daukan erantzukina bilatu ostean, berau onartuta, aurrera egiten hastea.

Ez dakar Fitok proposamen zehatzik, Xalimen hiriko aferaz. Ez digu esaten zeinena den errua, edo nori zor zaion konpensazioa. Baina, ez al da hori jarrera zintzoena? Hausnarketa moltsoa plazaratu digu, gelaz kanpoko elkarrizketa galduan, pasabidean edo, inorena ez den tokian alegia, klaustrokidea ez den irakasle batekin, Artizarnerekin, Jerusalem bera sortu zuen Xalim jainkosa odoltsu harekin lotu daitekeena edo, eta hortxe ditugu Josu, Miren eta Joxe ikasle –kanporatuak hauxe kasualitate onomastikoa!–, elkarbizitza eta herriartasuna eskola hartzen.

Zergatik mintzatu behar da Jerusalemez? galdetzen du Joxek, Jerusalem gerran ari direlako, erantzuten du Artizarne andereñoak, eta urruneko liskar horrek baldintzatzen ditu hain zuzen ere, bai egun munduan dauden gerrak eta baita orain arte izan diren gainerako gerra gehienak ere. Askotxo dela pentsa liteke, baina ez dabil sobera okerturik Fito. Gurean

ere, nola ez. Eta denboran oso atzera joan gabe hortxe ditugu azken gurutzada santuan oihukaturiko Dios, patria, rey zein JEL leloak, elizak erre nahi zituztenekin batera, naski. Elkarbizitza ez zen orduan ikasten eskolan, baina egun antzeko leloak marmarikatzen dituztenek ere objezioa egiten diote herritartasunari, eta Xalimen gurpilak nekez duke etenik.

Baina guztiarekin ere itxaropentsu zaigu Fito, hala behar, eta itxaropen hura ere darabilen umore zipriztinetik dario. Eta eskertzekoa da, izan ere, gerra tristea baita, eta bakean barrea da ozena, barrea baita gerraren aurkako armarik eraginkorrenetakoa. Fitoren umorea hizkuntzatik dator nagusiki, hitzen balio poli-semikotik, euskaratik beratik, eta horregatik Gomorrakoak gorra dira eta antisemiten ondoan antikamitak daude.

Baina hitz jokuek ez diote testuari pisutik arintzen, eta Fito busti da busti denez. Egun erlijioaz horrela idaztea ez da gauza arrunta, ezta segurua ere, mendebalde handian zein gure txikian. Fundamentalismoaz arduraz mintzo da bertako integrismo zahar eta berri-tuaz ahantzirik edo ikusi nahi gabe, eta Ameriketatik heldu nahi den krezionismo eta Bible Belt sasi zientzia hurbileko sekta zenbaiten ariora loratzen hasia da nola mihura zuhaitzetara.

Arrazoi du Artizarnek irailaren hamaika-koak mundu osora egoera berri bat ekarri zuela dionean, nazien holokaustoak gizaterian sortarazi zituenen pare. Ezin da halakoetara iritsi, eta elkarbizitzan aurrera egin beharra dago, elkarrizketaren bidetik, negoziazioaren bidetik, demokraziaren bidetik, bestela ez da berrikuntzarik izanen, lehengo lepotik burua jarraituko da, eta soilik eginiko triskantzaren tamainaren araberako etsipenak ekarriko gaitu atzera hausnarketa abiapuntu honetara ziklikoki. Luxuzkoegia ordea, aurki guztiok zant part eta leher nahi ez badugu bederen.

Eta hori du on ere Xalimen hiria honek, gutaz gutxi badihardu ere, gureak ere bor-borka dirakiela orriotan, Xalimen hiriaren tragedia gurea ere badela, Euskal Herriaren tragedia alegia, eta palestinarrak zein israeldarrak dauden bezala, euskaldun zein espainiar/frantsesak bagaude, arazoa are konplexuago bilakatzen diguten aldaera guztiekin, historia erabilera berarekin, hizkuntz afera lagun, eta elkarbizitzan urratsik eman nahi ez dutenekin. Fitok ehundu digun elkarrizketa, Palestina-Israel arazoaren inguruan, gure arazo nazionalaren alegoria dugu, eta gutako bakoitzak, honetan aktore dabilen neurrian, erantzukizuna ere badu. Hasteko, eta Artizarne andereñoaren aholkuari jarraikiz, norberari galderak egiten, erantzuten, erabakitzen uztean eta gauzatzeko



bermeak eman ahal izatean datza arazoaren konponbidea. Ez diezaiogun bada objektua egin.

Ahitzeko hitz bakan bat testuaren generoaz, testu tipoaz. Ezin isilik egon. Zer dugu Fitok oraingo honetan –berriz ere?– eskaini digun testu hau? Antzerkia, saiakera, gazte literatura, gidoi zinematografikoa...? Eta zer axola zaigu, bestalde? Zein da egilearen asmoa? Norentzat idatzi du? Lortzen al du bere helburua? Hanpatasunik eta negarberarik gabe, hau da, sotiltasunez, arazo larriez dihardu, ba al da bide aproposagorik gauzak benetan konpondu eta aldatu nahi dituenarendako? Egiatasuna dario testuari, eta hori balio handia da. Erabilera handiko liburua begiztantzzen zait, eskolan dudik gabe, baina haratago ere, irakurketa publiko batean, Josu, Maria, Joxe eta Artizarne andereñoarekin. Utziko al didate filosofia irakasle erretxinarena jokatzeko?

Joxemiel Bidador



## 1. Damaskoko atea:



Bero handia egiten zuen eta irakasleari ez zitzaion ezertxo ere aditzen. Josu, Joxe eta Miren hizketan ari ziren azken lerroko aulkietan eserita.

IRAKASLEAK: Platonek bere “Elkarrizketak” idazteari ekin ziolarik, ez zen soilik idazteko modu berri bat erabiltzen ari izan, pentsatzeko era berria ere abian jartzen ari izan zen... Aurreko Hesiodok edo Homerok mito erlijiosoak edo kronikak erabili bazituzten ere, Platonen idazkerak bere aurretik ez zegoen memoria motari nahiz gogamenari atak ireki zizkion...

...zer gertatzen da hor atzean?

JOSUK: Ezer ez.

IRAKASLEAK: Zertaz ari zarete hizketan?

JOXEK: Ezertaz ere ez.

IRAKASLEAK: Gurean, halaber, modu honetako idazki literario-filosofiko-pedagogikoak izan dira, adibidez, L. L. Bonaparteren aginduz eta A. Iturriagaren *Jolasak* oinarriztat hartuz: J. Duvoisin *Iturriagaren Solastaldiak* lapurteraz eginiko bertsoa edo E. Intxauspere *Iturriagaren Elhestaldiak* zubereraz eginikoa edota J. A. Uriarteren *Iturriagaren Berbal-*

*dijak* bizkaieraz egina bezalakoak. Autore ezagunik gabeko zenbait kasuren artean jorratu izan da eredu hau, *Irakasdearen eskugarria* deituriko elkarrizketa da horren adibide...

(...)

Eta Mogelek, *Peru Abarka*, euskarazko eleberrigintzan aitzindari dena idatzi zuenean, gertaera solteak bildu eta eskaini baino elkarrizketak papereratu nahi izan zituen euskal literaturan filosofia-oinarria ezarriz. Ez genuke ahaztu behar, bide batez, Mogel bera izan zela Pascalen *Gogamenak* itzuli zituenena...

(...)

Aski da!, zuek, atzeko hirurok, zoazte kanpora eta klasea amaitu arte itxaron niri, gero hitz egingo dugu-eta!

JOXEK: Guk ez dugu ezer egin...

IRAKASLEAK: Horregatik, hain zuzen ere. Eskolara ikastera etorri behar da eta ez hizketan denbora alferrik galtzera..., beraz, zoazte kanpora!

JOSUK: Eta zer egin behar dugu kanpoan?

IRAKASLEAK: Itxaron, besterik ez!.

MIRENEK: Nik ere bai?

IRAKASLEAK: Noski!. Zu zara horietariko bat...

(...)

## 2. Jaffakoko atea:





ANDEREÑOAK: Kaixo!

JOXEK: Zein zara zu?

ANDEREÑOAK: Artizarne

JOXEK: Eta zer egiten duzu hemen?

ANDEREÑOAK: Irakaslea naiz

JOSUK: Gu zigortuta gaude.

ANDEREÑOAK: Horregatik nator.

MIRENEK: Aspertuta ere bagaude...

ANDEREÑOAK: Normala da. Hemen ez dauzkazue ohiko gelakideak muturka aritzeko. Bakartuta zaudete.

JOXEK: Zertara etorri zara zu?

ANDEREÑOAK: Jerusalemi buruz hitz egingo dizuet...

JOXEK: Baina hau ez da erlijioaren ordua...

ANDEREÑOAK: Ez. Zuek elkarbizitza zer den ikasi behar duzue oraindik, bestela ez zinategete hemen, zeuen gelatik kanpo, egongo...

MIRENEK: Eta guri errieta egitera bidali al zaituzte?

ANDEREÑOAK: Herritartasuna da oraingo ikasgaia, zuek behar duzue eta. Beraz, ez gara erlijioaz arituko...

JOXEK: Eta orduan, zergatik mintzatu behar da Jerusalem?

ANDEREÑOAK: Jerusalemen gerran ari direlako.

JOXEK: Gerra hura urrutiegi dago, ordea.

ANDEREÑOAK: Urruneko liskar horrek baldintzatzen ditu hain zuzen ere, bai egun munduan dauden gerrak eta baita orain arte izan diren gainerako gerra gehienak ere...

JOXEK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Haatik.

JOXEK: Horixe arrazoia!

ANDEREÑOAK: Arrazoirik ezaren kondaira baita gaur kontatu nahi dizuedana. Ustez, Bakearen hiri zena, nola odol nahiz oinazeen hirigune bilakatu zen. Hiritartasuna irakasteko, bada, funtsezkoa. Beraz, zer dakizue Jerusalem buruz?

JOXEK: Israelen dagoela.

JOSUK: Ez, Palestinan!

ANDEREÑOAK: Ongi, gehiago...

JOXEK: Israelgo hiriburua dela.

ANDEREÑOAK: Gaizki!

JOXEK: Palestinakoa, beraz...

ANDEREÑOAK: Ez bata eta ez bestea...

MIRENEK: Andereño..., non dago eta nongo hiriburua da Jerusalem?

ANDEREÑOAK: Batzuek beren hiriburua dela diote, baina, ofizialki, ezin esan inongoa denik, eta kokapenaz... batzuek Israelen dagoela diote eta besteek Palestinan. Egia esanda, banatuta dago.

MIRENEK: Zer dago banatuta, horri buruzko iritzia?

ANDEREÑOAK: Irizpidea eta hiriaren kokapen fisikoa bera ere bai.

MIRENEK: Hiria erdibiturik al dago?

ANDEREÑOAK: Bai, hura eta inguru osoa harresi handiaz banatu dituzte barruti desberdinetan.

JOXEK: Aspaldidanik ditu Jerusalemek harresiak!

ANDEREÑOAK: Jakina, hamaika ate dituztenak, baina ni harresi berriaz ari naiz. Oraindik eraikitzen ari diren hormaz...

JOSUK: Eta zertarako ari dira egiten pareta bereizgarri haiek?

ANDEREÑOAK: Iritzi desberdinak dauzkatena bereizteko, hain zuzen...

MIRENEK: Zer-nolako usteak ekar lezazke jendea bereizi beharrak?

ANDEREÑOAK: Adibidez, hautu erlijiosoak, hain justu edo...hain injustu!

JOXEK: Erlijioaz ez duzula hitz egingo esan duzu.

ANDEREÑOAK: Ez dut hori adierazi. Herritartasunaz arituko garela esan dizuet eta, horretarako, Jerusalemen adibidea hartuko dudala hizpide.

MIRENEK: Kontatu, bada.

ANDEREÑOAK: Jerusalemgo oraingo agintariak, israeldarrek, Jerusalem izendapena Dabid errege juduak ezarri ziola diote haren hizkuntzan Shalem (Bakearen) tokia izendatzeko. Palestinarrek, aldiz, Al Quds deitzen diote (Santua) eta beren hiriburua dela, edo izango dela diote. Egiptoar kronika zaharretan (K.a. 1850ean), berriz, Jerusalemen aurrekaria den Hurushalimu izeneko herri izena agertzen da, Xalimek sorturiko hiria omen dena, eta aipatu Xalim hura, berriz, orduko Venus jainkosa odoltsu bezain ankerra besterik ez zen.

JOXEK: Baina benetako izena, zein da?

ANDEREÑOAK: Jerusalem, noski. Gertatzen dena da toki hartan gerra dagoen bezalaxe, hango gizakien hizkuntzen artean ere borroka dagoela eta, hiztunen artean bezainbeste, gizatalde bakoitzaren zientzialari, hizkuntzalari eta erlijioen artean ere liskar bizian daudela.

JOXEK: Beraz, oraingo mokokaldia behintzat, ez da soilik erlijioa dela medio izaten ari.

ANDEREÑOAK: Aurretik ere ez. Erlijioa, aipatutako aspaldiko kalapitekin batera,

lehiarako beste eremu bat besterik ez da. Beno, egia esanda, gure kasurako behinik behin, garrantzi handia duen arloa da. Izan ere, ezin esan Jerusalemen muntak, juduen, kristauen eta islamdarren hiru erlijio nagusietan pisu handia daukala bakarrik, haietariko bakoitzak dituen erlijio azpimultzo anitzetan ere, badu garrantzia.

JOXEK: Zer esan nahi duzu horrekin?

ANDEREÑOAK: Kristau sinesmena ez dela bakarra, esate baterako. Han, Eliza Katolikoak dituen gurtza-tokietan koptoak, armeniarrek, etiopiarrek, ortodoxoak edota erromatar erri-toaren aldekoak dauden bezala, Jordan ibaian kristau protestante adbentistak, ebanjelikoak eta abar ere aurkituko ditugula. Halaber, juduak, karaitak eta hasidiak, zurrinak edo laxoak izan daitezke, mahometarrak, bestalde, ismaeldarrak, sunitak, xiitak eta Hanbal edo Wahhab zaleak diren bitartean. Horretaz guztiaz gain, ingurune bera maite eta zaindu nahi duten aurreko erlijioen arteko nahasketak ere badaude: Christian Embassay-ko kristau sionistak edo shisan islamdar kirkasiarrak kasu. Baita antzinako Pertsiatik edota Siriatic zaharberitutako bahi moduko sinesmen hermetikoak ere...

JOSUK: Erlijioak dauden tokietan bakerik ez, andereño!

ANDEREÑOAK: Ez pentsa, erlijioak gainditu nahi izan zituen sionismo politikoak, erantzukizun handia du gerra garaikideetan.

(edo ... politikoak, badauka eduki erantzukizun politikorik gerra garaikideetan)

JOSUK: Politikak eta erlijioak ez dute batere antzik. Batak praktikoa bezain arrazoizkoa behar du izan eta bestek, berriz, alde-rantzizkoa...

ANDEREÑOAK: “Xalimen gerretan”, erlijioak bezainbeste eragin du politikak, ordea.

JOXEK: Nolatan?

ANDEREÑOAK: Gure Aitaren idazki zaharrena gordetzen zen toki berean, Suitzan, hasi zen eratzten, 1897an eta Teodoro Herzlen eskutik, Jerusalemgo erlijio guztiez gain, munduko juduen baketokia eraiki nahi izan zuen sionismoaren ideologia politikoak. XX. mendearen hastapenetan, 1909an, lehenengo nekazaritza-bilgune utopikoa (kibutz-a) ezarri zuten Tiberiades aintziraren ezpondetan. Beraz, ezin arrazionalago eta baketsuago hasi zen, nahiz eta, handik gutxira, egun odoletan dagoen zauria irekitzen hasi izan.

JOSUK: Nekez uler daiteke...

ANDEREÑOAK: Horrek, noski, bere gara-pena behar izan zuen. Lehenengo Mundu Gerrarekin batera, turkiarrek Jerusalem galdu eta britainiarrek, aldiz, Palestina osoa eskuratu

zuten. Azken hauek, 1917an, “Balfour” deituriko agiriaren bidez, lur haietan egoteko juduen eskubideak onartu zituzten eta horren ondorioz, Bigarren Mundu Gerra amaitu arte, etengabeko lipizta sesioa zabaldu zen. Naziek eragindako Genozidioren aurretik, bada, hain nabarmena zen biztanle juduen gorakada (aliah, hebraieraz), ezen, 1936an Jerusalemgo palestinarren agintariak haien aurka matxinatzeke proposatu zuela. Gauzak horrela, Nazio Batuen Erakundeak, Palestina bitan banatzea onartu zuen 1947an. Palestinarrek ez zuten hura onartu eta, hortik aurrera, hasi zen juduen independentziarako gerra. Juduek Tel-Aviv aukeratu zuten hiriburutzat eta Ben Gurion lehen ministro. Inguruko arabiar gobernuek, etsita, su-etena adostu zuten 1949an Israelgo estatua onartuz eta, Palestina, Jordania eta Egiptoren artean banatuz. Ez zuen asko iraun hitzartutakoak. Alde batetik, palestinarren ezinegonak arabiar gobernuek gerrara eraman zituen berriro ere 1967an, eta bestetik, mota guztietako juduen etorrerak (askenaziak, sefardiak, etiopiarrek, etab...) luraren premia areagotzen zionez, Israelek orduan gerra zela medio eskuratutako lurraldeak bereganatzera jo zuen Nazio Batuek (242. ebazpena) aurreko mugetara itzultzea derrigortu arren. Horri kasu egin nahi ez izanak ekarri zuen 1973ko gerra ( Yom Kippur deitua)

zeinetan 1967az geroztik ezarritako mugak finkatu zituen nahiz eta Nazio Batuek berriro ere, 338. ebazpenaz, hasierako lurraldeetan banatzea berretsi zuen. Eta, gutxi gorabehera, gauzak horrela daude orain...



### **3. Simaurraren atea:**



JOXEK: Dena borroka eta zipirri-zaparra. Ez al da bake saiorik burutu “Bakearen herriko” lautada haietan?

ANDEREÑOAK: Burutu ez. Saiatu bai. Askotan. Lehen adierazitako menia-aldiez aparte 1978an AEBetako presidente J. Carter-ek, Camp David izeneko hitzarmena bultzatu zuen Egiptoko buruzagi zen Anwar el Sadaten eta Israelgo Menahem Beginen artean, baina, indarrean jarri ez zenez, “Intifada” deituriko matxinadari ekin zioten palestinarrek. Osloko elkarrizketetan adostutakoak ekarri zuen 1994an Kairon sinaturiko akordioa, zeinetan Palestinarren autogobernua onartuta gelditu zen bi aldeetatik. Hurrengo urtean, ordea, juduen aldetik Bakea sinatu zuen Issac Rabin hil egin zuten. Handik aurrera gerraren aldekoa den “Likud” (Argia) alderdiak hauteskundeak irabazi izan ditu Israelen eta balizko Bake hura Jerusalemgo karraketan baino gehiago paperetan besterik ez dago.

MIRENEK: Nork hil zuen Issac Rabin?

ANDEREÑOAK: Igal Amir izeneko soldadu-ohi batek. Israelgo sionismoak, teoriarik erlijioaren eta estatuaren arteko bereizketa onartu

arren, Torah ikasteko armadara joan beharrik ez izatea ahalbideratzen du. Dena den, Amir horrek, yeshiva hesder batean, hau da mintegi militarrean egin zuen bere soldadutza elite taldeetara pasatu arte. Bere anaiak, Haggai Amir goimailako tiratzaileak, Rabin hiltzeko erabili zituen bala bereziak prestatu zizkion. Ez zuen, beraz, palestinar batek hil, Israelgo armadan hezitako judu ortodoxo batek baizik. Egiptoar armadako soldaduek Anwar el Sadat, bakezale arabiarra hil zuten modu berean, bestalde...

JOXEK: Ez al da aski susmagarria?

ANDEREÑOAK: Beno...Kennedyrena edo Gandhirena izan daitezkeen bezala.

MIRENEK: AEBetan, Kennedy gabe ere, azalaren koloreari muzin eginez denentzako herritar eskubideak erdietsi ziren eta Gandhik ikusi ez bazuen ere, Indiak independentzia eskuratu zuen, baina Israelen, oster, Rabinen hilketaz geroztik bakearen aldeko alderdiek hauteskundeak galdu dituzte eta odolak gero eta gorriago bihurtzen ditu Xalimen hiriaren egunsentiak eta ilunabarrak.

JOXEK: Baina horietan guztietan ez dago erlijio arazorik!

ANDEREÑOAK: Egia da. Alde batetik, Israelgo estatua, ustez behintzat, ez da konfesionala eta, bestetik, azken urteetan palestinarren borrokak egin izan dituzten erakunde

gehienak ere, ez dira, berez, erlijiosoak. Horretaz gain, Palestinako egungo egoeran mugen arteko auziak dira edo, nolabait esanda, hara lehenago nor iritsi ote zenaren usteak. Hitz bitan: lurraren jabegoa da kontua, baina ez da beti horrela izan. Eta nago, egungo buruhaustearen iturburua ez dela hori bakarrik.

JOXEK: Nola joan da gaia korapilatzen?

ANDEREÑOAK: Lehen esan bezala, juduak britainiarrekin batera joan ziren lurra eskuratzeko baina Erresuma Batua Krimeako gerraren ondorioz egin zen Palestinaren jabe eta hark, tartean beste aferak batzuk izan baziren ere, batez ere kontu erlijioa izan zuen bere sorreran.

JOSUK: Noiz gertatu zen?

ANDEREÑOAK: Hemeretzigarren mendearren erdialdean, 1853an. Sasoi hartan Palestinako lurraldeak, pertsonak nahiz ondareak, turkiarren menpe zeuden, orduan bertan zeuden erlijioak bizi zituztenak. Horrelakoetan, gehienetan gainera, leku jakin batean erlijio bat baino gehiagotako zaindari desberdinak egoten dira zelatan. Deikunde deritzon elizan, esaterako, katolikoak, ortodoxoak eta armeniarrek elkarri beha daude, nor mesfidatiago. Aipatutako eliza hori, oso zaharra da, Justinianok eraiki omen zuen VI. mendean Konstantinok egindako baten gainean eta hark

Kristoren jaiotza-lekua gogoratu nahi du. Nahiz eta bere garaian ez bide zen Justinianoren oso gustuko geratu eta eraiki zuen arkitektoari burua moztu, handik aurrera mota askotako batimenduak atxikitzen joan zaizkio. Hemeretzigarren mendearen erdialdean, berriz, toki haiek zaintzen zituzten frantziskotarrek Kristoren jaiotza zilarrezko izar batez markatu nahi izan zuten. Kristau ortodoxoek, beren aldetik, hura ez zela benetako tokia zioten eta, haien aburuz berez zenarekiko metro batzuetako tartea zegoela argudiatuz ez zuten hori egiten utzi nahi. Halere, turkiarrak frantziskotarren alde lerratu ziren eta izarra jartzeko baimena eman zuten. Orduan, ortodoxoen defentsan, Errusiako Nikolas Tsarra gatazkan sartu zen. Frantziak eta Erresuma Batuak ere frantziskotarren alde egin zuten eta errusiarrak garaitu zituzten Krimean. Horren ondorioz, Palestina britainiarrek eskuratu zuten. Garai hartan, 10.000 judu, 25.000 kristau eta 250.000 islamdar bizi ziren lurralde hartan.

JOSUK: Eta frantsesak?

ANDEREÑOAK: Behin baino gehiagotan saiatu dira Palestina eskuratzen. Gurutzadetan partaide izandako asko frankoak izan ziren. Napoleon bera ere 1799an saiatu zen lur saindua berentzat “berreskuratzen”, zeren Godofredo Bouillonekoak 1099an Jerusalem konkistatu zuenetik hura frantziarrena zela zioen,

baina britainiar inperioari ezin izan zioten aurre egin.

JOXEK: Beraz, borrokak Palestinan ez dira inoiz arrotz izan...

ANDEREÑOAK: Xalimen hiria hango lurraldeetako lehenengoa ez izan arren, mundu osoko hiritar bizimodua hantxe sortu zela esan daiteke. Egungo palestinarren arbasoak ziren kanaandarrek munduko lehenengotariko hiriztat jotzen den Jeriko eraiki zuten duela hamar mila urte. Bibliak kontatzen duenez, aipaturako hiribilduak zazpi mila urteko antzinatasuna zuelarik, garai hartako juduek, Josue buru, Jordan ibaia zeharkatu ostean eta zazpi apaiz aurrean zituztela, hango harresiak zazpi aldiz inguratu zituzten tronpetak joz harresiak, berez, erori arte. Orduan, bertako gizaki nahiz animalia denak akabatu egin zituzten. Bizirik gelditu omen zen bakarra Rahab izeneko emagaldua izan zen, eta hura, dirudienez, ez bere lanagatik, juduei atea irekitzeagatik baizik.

JOSUK: Eta betirako desagerrarazi al zuten?

ANDEREÑOAK: Ez, Jeriko oasia denez, Judeako basamortuaren erdian eta Jerusalemetik nahiko gertu dagoena, Palestinarren jabetzako izan denean bezalaxe, erromatarrek eta arabiarrek ere toki berean eraiki zituzten beren hiriak. Horrela, bai Herodes Handiak, leku

horregatik Kleopatra ospetsuaren aurka sesioan zebilela, hipodromo, antzoki, zirko eta guzti zituen hiri erromatarra egiteari ekin zion Kristo jaio zen garaian. Halaber, toki bertsuan kokatu zuen Hisham kalifa omeiak bere neguko jauregia 742an, eta horra jotzen zuen Damaskoko hotzak astintzen zuenean..., edozein modutara, egungo zibilizazioa lehenengo ziutate horretan jaio zela esan daiteke, herrien arteko borrokekin bat eginik eta haietaz idatziriko gezurrezko istorioekin batera, bide batez.



## 4. Indusketen atea:



MIRENEK: Orduan juduak, erromatarrak, frantsesak, errusiarrak, turkiarrak, edota britainiarrak bezala, Palestinara joandako konkistatzaileak besterik ez dira...

ANDEREÑOAK: Historikoki begiraturik, ez aipatu dituzun haiek bezain berandu, baina erromatarrek, esaterako, hango biztanleei “filisteo” deitu zietenean, palestinarrak zirela ari ziren adierazten. Dena den, lehen esandakoaren arabera, zibilizazioaren hastapenetatik lurraldeaz borroka egin den neurri berean, hizkuntza eta historia arloetan ere eman izan da liskarra eta bertan egotearen antzinakotasun-eskubidea aitortzean ere, iritzi desberdinen arteko eztabaidak daude.

JOSUK: Eta horregatik aritu al dira gerran betidanik Palestinan?

ANDEREÑOAK: Palestinako Historia Europakoa ere bada, eta era berean, Munduko Historia ere horretan islatzen da. Erdi Paleolitoan, hemen bezala, “homo sapiens sapiens” delakoa Karmel mendiko harpeetan eta Judeako basamortuan zebilen...

JOXEK: Eta haiek zer ziren, juduak ala palestinarrak?

ANDEREÑOAK: Batek daki...

JOXEK: Nork?

ANDEREÑOAK: Hitz egiteko modua da. Bakoitzak bere iritzia duela esan nahi nuen...

JOSUK: Juduek lurralde haietan Paleolitotik juduak daudela diote eta palestinarrek, aldiz, palestinarrek zirela arrapostu egin ohi dute.

JOXEK: Beren arteko elkarbizitza ez al zuten onartzen iraganean ere?

ANDEREÑOAK: Ez, baina eztabaida bera antzua zen orduan eta hala da orain ere.

JOXEK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Paleolitoan juduen eta palestinarren arteko bereizketarik ez zegoelako.

JOSUK: Egun bai, ordea.

ANDEREÑOAK: Bai eta horretarako borroka egin behar dute, gerran bezainbeste, arkeologian, antzinako historian edo erlijioan, kasu...

JOXEK: Baina Jerikon, esate baterako, zeintzuk bizi ziren lehenago?

ANDEREÑOAK: Esan dizuet kanaandarrek..., baina gaurko palestinarrek haiek senidetzat aldarrikatu arren, hori frogatzeke dago. "Itsaso Hilaren" bidea darama horrek.

JOXEK: Nola Itsaso Hilarena?

ANDEREÑOAK: Genesiak (Hasiara liburuak) "Gatzaren Itsaso" deitu zion, eta Jose profetak "Arabako Itsaso..."

JOSUK: Araban al dago?

ANDEREÑOAK: Ez. Jerikotik gertu dago eta egun munduan dagoen geologiako bitxikeriarik handienetariko bat da. Bertan Jordan ibaiak aspalditik daraman ura bildu eta geratu egiten da irteerarik gabe. Gaur egungo ur-emia urtean 6,5 miloi litrokoa den arren, gero eta txikiagoa denez, gero eta gaziagoa da. Litro bakoitzaren laurdena mota desberdinetako gatzez osatua da eta orain ur haietan bizidunek tokirik ez izan arren, behinola itsasontziek arrantza eta garraioa egiten zituzten. Moises profeta juduak ikusi zuenean, gaurko mailatik hogeit metro gora omen zituen ezpondak. Egun, berriz, gero eta ur gutxiago du eta apenas bizitzarik dagoen. Gizakiak haren uretan ezin dira murgildu eta murgildutakoen gorputzak, gorpuak bailiran, azala belztuta geratzen dira...

JOSUK: Zeinen ondo...urperatzeko beldurrik gabe itsasoan ibili ahal izatea!

ANDEREÑOAK: Asko dira ur eta lur haietan galdu direnak... Jordandik horra iritsitako arrainak, adibidez, edo Moises zena, esaterako, zeinak ezin izan zuen handik aurrera joan eta bertan hil zen bere Jainkoak Jerusalemerainoko bidea eragotzi ziolako. Joan Bataiatzailearen burua soinetik bereizi zuten hemen Salome dantzariak Herodes Handiari horixe eskatuta. Itsaso Hilaren lurretara joan zen Kristo bera ere barau egin ahal izateko...

JOXEK: Baina hango arrantzaleak eta mari-  
nelak zer ziren juduak ala palestinarrak?

ANDEREÑOAK: Aurkitu dituzten, aingu-  
ren, ontzien eta abarren arabera, egiptoarrak,  
greziarrak edota erromatarrak...

JOXEK: Eta itsasaldean bizi zen jendea?

ANDEREÑOAK: Garaian garaikoak. Naba-  
teoak bolada batean, Juda leinukoak beste  
batean..., hantxe omen zeuden Sodoma eta  
Gomorra hiriak.

MIRENEK: Sodoma eta Gomorra?

ANDEREÑOAK: Ez al duzue inoiz “sodomi-  
tak” hitza aditu?

JOSUK: Nik bai.

ANDEREÑOAK: Eta zer esan nahi du?

JOSUK: Iraina da.

ANDEREÑOAK: Zer adierazteko?

JOXEK: Horrela deitzen zaie lizunkerietan  
aritzen direnei

ANDEREÑOAK: Zer-nolako lizunkerietan?

JOXEK: Ez dakit..., atzelariak edo mari-  
koikerietan dabiltzanak omen dira sodomitak.

ANDEREÑOAK: Hona hemen beste  
hizkuntza-borroka bat..., hitz egiteko modua  
baino gehiago adierazten duena. Bibliak  
dionez, Gatzaren Itsasotik gertu, Sodoma eta  
Gomorra hirietan, jendea askea omen zen

sexu-ekintzak egiterakoan eta plazera besterik ez omen zuten bilatzen beren harremanetan. Hori elkarbizitza arautzeko kaltegarria zelakoan, Jainkoak, aipatu bi hiriak birrindu egin zituen Lot izeneko bat eta bere familia izan ezik. Beno, haren emaztea, atzera begira gertzeagatik, gatz bihurtuta gelditu omen zen...

JOSUK: Hara ze Jainko gaztuna bera ere! Hobe Lot-an gelditzea sexuan jardutea baino, beraz ...

ANDEREÑOAK: Lot-en emazteari jakin-minak jo zion eta hantxe galdu zen betiko.

JOXEK: Jakin-mina ere txarra al da?

ANDEREÑOAK: Ez dut uste, baina juduen Jainkoak ez omen zuen egin behar zuenaren lekukorik nahi...

JOSUK: Esaten duzunaren arabera, bada, Sodoma eta Gomorra betirako desagertuko ziren. Ez al da horrela?

ANDEREÑOAK: Haietaz zabalduriko jakin-minak, behinik behin, beste aurkikuntza batzuk ahalbideratu zituen...

JOXEK: Zeintzuk?

ANDEREÑOAK: Kumran eta Masada, adibidez...

MIRENEK: Eta hiri haietako biztanleak zer ziren, juduak ala palestinarrak?

ANDEREÑOAK: Haietaz ez dago arrastorik. Bai, ordea, Kumran herriaz edota Masada gotorlekuaz, eta haiek judutarrak zirelakoan daude.

JOSUK: Nik Sodomaz eta Gomorraz gehiago mintzatzea nahi dut. Zer-nolako likiskeriatan aritzen ziren jakin nahi dut...

ANDEREÑOAK: Jakina, orain ez duzu esaten hori erlijioa dela...

JOSUK: Elkarbizitzaz hitz egin behar zenigula esan diguzu!

ANDEREÑOAK: Ba al dakizu nola deitzen zieten Gomorrako hiritarrei? Ez dakit zu sodomita izango zaren baina gorra bai behintzat, gomorrakoak bezala...

JOSUK: Ez du balio. Gomorratarrak behar dute izan, eta ez gorrak...

ANDEREÑOAK: Ez dakizu ezer. Hispalisetik Sevillarainoko biderik ez al duzu oraindik ikasi?

JOSUK: Hispalisetik nora?

ANDEREÑOAK: Begira, adibidez, nondik datorren Donostia izena. Donostia, Done Sebastian izango zatekeen eta garapen fonetikoaren bitartez honako bihurtu zaigu: Done Sebastian, Donebastian, Donebastia, Donastia, Donostia... Beraz, gomorratarrak, gomor-tarrak, gortarrak, gorrak... horra zure jatorria!



JOSUK: Utzi hori!

ANDEREÑOAK: Ados... utz dezagun!

MIRENEK: Baina, aurretik, Kumran herriaz edota Masada gotorlekuaz esaten zenuen horretara itzuliz..., haiek juduak ala palestinarak ziren? makabearrak ala kanaandarrak?...

ANDEREÑOAK: Egun Kumran eta Masada aztarna arkeologikoak besterik ez dira eta, jakina, ikerlariaren arabera, erantzun desberdina eman daiteke horren aurrean. P. R. de Vaux, Jerusalemgo San Esteban Biblia Eskolakoak edo Albright senar-emazte arkeologoen edota J.O'Callaghan hizkuntzalariak ez dute gauza bera esaten...

JOXEK: Eta zuk, zer diozu?

ANDEREÑOAK: Nik, nire motzean, jakin badakit, Kristoren garaian Kumranen eseniarak izenekoak bildu zirela eta nolabaiteko Hiria osatu zutela. Aipatutako eseniar haiek (aurreko asidearren antzera, Kristo bera ere talde horretakoa omen zen) erlijio-elkarte judutar bateko partaideak ziren. Ez omen zuten onartzen kanpoko aginterik eta, bizitzan bertutea bilatzeaz gain, bizia bera uzteko prest zuden botere arrotzari men egin aurretik. Erromatarrek haien aurka borrokatu zuten (X. legio fretenseak haien aurka bidali zituzten) eta haiek Erromaren kontra. Horregatik babestu behar izan ziren Masadako harresien atzean non, era-

sotzaileen menpe gelditu baino lehenago, beren buruez beste egitea deliberatu zuten.

JOSUK: Eta hori nola dakizu?

ANDEREÑOAK: Horixe kontatzen da egun hango lautadetan.

JOXEK: Numantzian bezala egin al zuten?

ANDEREÑOAK: Egia esanda hura ere kontaktizuna izan daiteke. Nafarroako Kalagorrin horrela egin zutela diote eta, horregatik, euskaldunak antropofagoak garela idatzi izan da, ustezko antzinako espainiar haiek edo orduko juduak heroiak zirela baieztatzen zen bitartean... Horretan ere Masadako historiak hari desberdinak ditu. Gotorleku bat baino gehiagoko egon zela garbi dago. Arkeologo juduek (M. Avi-Yonah, Y Ahoroni edo Yadin irakasleak) zelotak zirela diote... Flavio Josefo historialari erromatarrek ez du istorioa modu berean kontatzen...

JOSUK: Zeintzuk ziren zelota haiek?

ANDEREÑOAK: Orduko sionistak.

JOXEK: Eta nola hedatu da judu heroien uste hura hangoen artean?

ANDEREÑOAK: Basamortua arakatzen ustezko gotorlekuaren aztarnak aurkitzeko ahalginak eta bost egin arren, ezin izan zen ezer frogatu Adolf Schulten alemaniarrek bere indusketa 1938an burutu arte.

JOSUK: Nazien garaian alemaniar batek aurkitu eta ikertu zuen juduen ikur nazional?

ANDEREÑOAK: Zuk ikur nazionala deitu duzun hori benetako arketipo bilakatzeko gizarteratu egin behar izan zen eta juduen hezkuntzan nahiz kulturaren ezinbesteko erreferente bezala gauzatu.

JOXEK: Eta nola egiten da hori?

ANDEREÑOAK: Yadin jenerala izan zen Masadako mitoaren sortzailea. Arkeologia arloari gerra egiteko moduak ezarriz, Israel osoan zehar dohainik lanerako bolondresak eskatu eta antolatu zituen Masadaren arrastoak azalarazteko. Gaur, erakusten diren aztarna haiek juduen erromes-toki dira. Areago, gotorlekuaren sasoian goraino igotzeko bidea zaila bazen ere (horixe baitzen bere funtsezko balio militarra), egun teleferiko batek errazten du erromesen igoera nahiz eta gazte sionistentzat betiko bideari ekitea gustukoa izan.

JOSUK: Eta zergatik agertzen da horrenbeste istorio Itsaso Hilaren inguruan?

ANDEREÑOAK: Batek daki!

JOSUK: Batek dakiela? haatik..., zu zer nolako irakasle mota zara?

ANDEREÑOAK: Erantzun borobilak ematen ez dakiena.

JOXEK: Zer erantzun mota irakasten duzu, ordea?

ANDEREÑOAK: Erantzukizuna bakarrik.

JOXEK: Baina zer erantzukizunez ari zara?

ANDEREÑOAK: Norberak daukana. Bakoi-tzak bilatu behar duena. Nik informazioak ematen dizkizuet, edo hobeto esanda, informazioak nola eta non aurkitu errazten saiatzen naiz..., baina ezin dizuet dena azaldu.

JOSUK: Eta Itsaso Hilaz, dena, azaldu behar duzun guztia azaldu al diguzu?

ANDEREÑOAK: Ez, oraindik Kumranekoa kontatu behar dizuet.

JOXEK: Bota, beraz...

ANDEREÑOAK: Sodoma eta Gomorraren kondaira zaharrak eragindako jakin-minak bultzaturik, jende anitz aritu zen Masada aurkitu ondoren hiri galdu haien bila berrogeigarreneko hamarkada hartan eta baita lortu ere !

JOSUK: Sodoma eta Gomorra aurkitzea?

ANDEREÑOAK: Ez, Kumraneko idazkiak.

JOXEK: Zer dira idazki horiek?

ANDEREÑOAK: Eseniarrek antxume-larru-azaletan idatzitako Bibliaren bertsioa, beren sektaren barne-arauak eta abar...

JOSUK: Eta?

ANDEREÑOAK: Sekulako aurkikuntza!. Ordura arte ezagutzen ziren Bibliak ez ziren aurkitutakoak bezain zaharrak. Gainera, judu

ortodoxoek duela mila urte finkaturiko beren Bibliaren idazketan inolako moldaketarik onartzen ez dutenez, duela bi milia urteko aipaturako Kumraneko izkribuak ezin dituzte ontzat hartu. Eliza katolikoak, bestalde, eseniar haien eta lehenengo kristauen arteko antzekotasunak ere ezin izan zituen erraz jasan. Beraz, lur haien gainean eraikitako erlijio nagusiek nozitu zituzten oso-osorik aurkikuntzen ondorioak.

JOXEK: Nola topatu zituzten arkeologoek antxumelarruazal haiek?

JOSUK: Izkribuak buztinezko ontzietan lurperatuta zeuden baina aurkitzaileak ez ziren arkeologoak izan.

MIRENEK: Nortzuk, orduan, juduak ala palestinarrak?

ANDEREÑOAK: Artzai beduino batek lortu zituen, halabeharrez...

JOXEK: Zer dira beduinoak?

ANDEREÑOAK: Palestinan aspaldidanik antzinako moduan bizi diren arabiar ibiltariak.

JOSUK: Eta zer egin zuen hark aurkikuntzarekin?

ANDEREÑOAK: Saldu egin zuen.

JOSUK: Nori?

ANDEREÑOAK: Belengo zapatari bati larrua erabil zezan, baina hark, izkribuetako

zeinuak ulertzen ez zituenez, Jerusalemgo Eliza Siriarrereko buruzagiari saldu zizkion berriro antzinako sirieraz idatzita zeudelakoan. Hori guztia duela hirurogei urte izan zen, oraingoz judutar eta palestinarren artean amaitzeke dagoen gerraren hastapenetan.

JOSUK: Baina siriarren buruzagi horrek irakurriko zituen, ez da?

ANDEREÑOAK: Ezin, ez baitzeuden sirieraz idatzita, hark orduan jakiterik izan ez bazuen ere; antzinako hebraieraz idatzita zeuden.

JOXEK: Zer gertatu zen, bada?

ANDEREÑOAK: Istorio bitxi hauxe: siriarrerrituaren buruzagia Beirutera joan zen balizko itzultzaile baten bila baina ez zuen inork aintzakotzat hartu. Berrero Palestinara etorruta, eta arkeologiaz edota hizkuntzalaritzaz tutik ere jakin gabe, zein alfabetoz izkiriatura zeuden ohartu zen eta Ekialderako Ikerketen Amerikar Eskolara jo zuen. Hantxe, jardun haieran hasiberria zen gazte batek, John Trever izenekoak, kasu egin zion eta Kumraneko izkribuak eta hebraiera zaharreko beste batzuk erkatu zituen. Berridazketa asko egin ondoren (ezin zuen flahsdun argazki-makina erabili, jadanik Jerusalem gerra hasia zen eta...) hebraierazko aztarnarik antzinakoenak zirela deliberatu zuen baina, ordurako, gerrak kolpaturik, siriarren buruzagi hark, alde egin behar

izan zuen eta Amerikarako bidea hartu zuen. Han zegoela izkribuak saltzen saiatu zen baina ez omen zuen haiekiko inork interesik agertu. Gauzak horrela, “Wall Street Journal”-en iragarki xume bat argitaratu zuen eta horra non, eroslea agertu zitzaion.

MIRENEK: Judua ala palestinarra?

ANDEREÑOAK: Bien arteko gerra hasi eta zazpi urtera suertatu zen hura. Biek behar zituzten, erlijioaz gain, beren eskubide historikoei eutsiko zieten oinarri berriak: frogazientifikoak, paleografikoak eta abar..., eta azkenean, juduek eskuratu zituzten.

JOXEK: Nola?

ANDEREÑOAK: Ba horiek ere militarren erara. Gogoratzen al zarete Masadaren mitoa eraikitzen ibili zen Yadin jeneralaz?

C-K eta MIRENEK: Bai horixe!

ANDEREÑOAK: Bera izan zen, horretan ere, garaipenaren estratega. Bere informatzailerak “Wall Street Journal”-en iragarkiaz ohar-tarazita, eta Jerusalemgo Eliza Siriarreko buruzagiak judu bati izkribuak ez zizkiola salduko jakinda, dirua eta erosle faltsua lortu zuten Kumraneko antxume-larruazal haien jabe bihurtzeko eta baita erdietsi ere, alajaina...

JOXEK: Eta zer egin zuen ?

ANDEREÑOAK: Bere aitari eman!

JOXEK: Bai zera!

ANDEREÑOAK: Horixe bera. Bere aita Hebrear Unibertsitateko Arkeologiako Sailburu baitzen eta berak eman zuen lorpenaren berri.

JOXEK: Nola?

ANDEREÑOAK: Bonben artean. Izan ere, horri buruzko prentsaurrekoa burutzen ari zela, palestinarren erasoak gertatu baitzen. Esan bezala, Palestinan, zentzu hertsian, arkeologia gerra-eremua ere bada. Horregatik, egun, Kumraneko izkribuak jadanik ez daude Itsaso Hiletik gertu, Jerusalemgo Israelen Museoa gordeta baizik. Haien artean, adibidez, urte pila daukan “Ilunbetakoen eta Argiaren seme-alaben arteko borroka” izeneko idazkia dago eta, bertan, jada duela berrogeita hamar urtetik hona juduek palestinarren aurka erabili izan dituzten antzerako estrategien berri ematen zaigu. Gerra bera ere arkeologiazkoa dugu, ausaz.

JOXEK: Orain ez al du inork galdetuko arkeologiak palestinarren ala juduen alde egiten duen?

MIRENEK: Nik ez behintzat.



## **5. Ate bikoitza:**



ANDEREÑOAK: Gauzak sinplifikatzeak, irudimen eskasa erakusteaz gain, ez du ulertzeko ezertan laguntzen. Egon, badaude kristauak diren palestinarrak, eta ez gutxi, musulmanak diren israeldarrak edota ateoak diren juduak...

JOSUK: Baina gerra batean, azkenean, beti aukeratu beharra dago zeinen alde zauden...

ANDEREÑOAK: Zergatik diozu hori?

JOSUK: Nire anaia, arkeologia ikastera joan zen Libanora eta hantxe, edozein tokitan, jendeak nongoa zen galdetu ondoren, katolikoa ala islamdarra zen itaundu ohi zion. Berak, nazkaturik, atea zela esaten zien eta libanoarrek, aldiz, berriro ihardesten zioten: baina, ateo katolikoa ala ateo mahometarra?

ANDEREÑOAK: Ez Beiruten bakarrik, ordea. Gatazka dagoen lekuan erlijioa erabilia izaten baita, Irlanda kasu... Horregatik bereizi egin behar dugu erlijio beraren eta erlijioaren erabilera politikoaren artean. Opera gustatzen al zaizue?

JOSUK eta JOXEK: Ez.

ANDEREÑOAK: Ze pena. Operak gauza asko erakusten baititu. Badago bat, "Toska "

izenburua duena eta hartan orain adierazi dudana argi eta garbi ikusten da. Scarpia, poliziaburua oso erlijiozalea da eta, halere, Toskaren kontra doa...

JOXEK: Aski, hasi zara esaten ez zenuela erlijioaz hitz egingo eta orain horretaz gainera musika klasikoaz ari zara.... Ba al dago kalamatika aspergarriagorik ?

ANDEREÑOAK: Nahi baldin baduzue, ni banoa hemendik...

JOXEK: Ez duzu joan beharrik baina, beti zure kalakarekin ibili beharrean, guk esaten duguna entzun zenezakeen...

ANDEREÑOAK: Zertaz?

JOSUK: Erlijioaz, esate baterako...

ANDEREÑOAK: Bota, bada...

JOXEK: Erlijioak ez dira arrazoikoak, arrazoiaaren kontrakoak baizik...

ANDEREÑOAK: Ez beti...

JOSUK: Ezin da hori esan. Badira edo ez dira, baina ez batzuetan bai eta besteetan ez.

ANDEREÑOAK: Historiak horixe erakutsi digu, ordea.

JOSUK: Zer?

ANDEREÑOAK: Arrazoaia, eta ezagutza oro har, etorkizunari begirako jarrera da. Beren funtsezko balioa praktikoak izatean datza. Badaude, halere, arrazoizkoak ez diren jakintzak,

erlijioak kasu, mugako eskarmentuetan, alaitasunean nahiz minetan, oinarrizten direnak..., baina ez dira, berez, praktikoak izaten zenbait unetan arrazoiaren arabera ulergarri bihurtu badira ere...

JOXEK: Ni naiz orain piperrik ulertzen ez duena...

ANDEREÑOAK: Erlijioa, nolabait esanda, norbanakoaren desirekin lot badaiteke ere..., arrazoi daitekeela esan nahi dut.

JOSUK: Hori da, hain zuzen, nik ulertzen ez dudana.

ANDEREÑOAK: Erlijioak, adibidez, portae-retan zer dagoen ondo eta zer gaizki irakatsi ohi du eta baita, kasu bakoitzean, arrazoitu ere. Erlijioak bizitzarako ereduak eta adibi-deak ematen ditu eta haien zergatiak azaltzen dizkigu.

JOXEK: Beno, txerrikia jatea debeka dezake, edo bekatua zer den argi utzi, baina hori guztia funtsatzeko ematen dituen arrazoiak ez ei dira arrazoizkoak.

ANDEREÑOAK: Animaliek, esate baterako, ez dute kontzientziarik. Ez jakiteagatik ez dakite ezta beren biziak bukaera badaukatela ere. Dena da, era berean, etenik gabeko jarraipena eta berehalakoa berentzat. Ez dute behar adinako zorrotasunik, egunerokotasunik, haraindikoaz pentsatzeko.

JOSUK: Zer da haraindikoa?

ANDEREÑOAK: Gerokoa edo orozgaintasuna. Animalien bizitza orainaldian kokatzen baita beti.

JOXEK: Eta gurea?

ANDEREÑOAK: Ipuinean bezainbeste, gizakiok inurriak gara eta animaliak, berriz, txirritak. Gaurkoari muzin eginez lan egiten dugu geroa buruan dugula...

JOSUK: Baita katagorriek ere...

ANDEREÑOAK: Eta inurriek. Jakina, neronek esan dizuet jada..., baina haiek guztiek ezin dute besterik egin eta gizakiok, aldiz, bai. Hortxe dago berehalakotasunaren eta orozgaintasunaren arteko diferentzia. Izan ere, bizitzaren jarraipena nahita hausten denean, haraindia eta kontzientzia sortzen dira batera... eta kontzientziarekin batera, berriz, gizakien artekoa nahiz geroko helburuen araberrako mendekotasuna.

JOXEK: Baina animaliekiko zuk aipatutako ezberdintasun hori ez da arrazoia.

ANDEREÑOAK: Arrazoia hortik dator. Lanak sortzen du arrazoiaren beharra..., beharrak lanabesak sortzen dituen era berean, eta gerra lan mota bat besterik ez da, eta armak, horretarako lantresnak soilik.

JOXEK: Orduan, gerra bera lanaren eta arrazoiaren ondorioa besterik ez da...

ANDEREÑOAK: Ez da erlijio-gaia bakarrik, bederen...

MIRENEK: Gizakia, berez, besteen aurka al da? Bibliako Kain hura bezala?

ANDEREÑOAK: Animalien antzerako berehalakotasunean gizakia munduarekiko hurkotasunean bizi zen, lagunartean. Aitzitik, lana dela medio, aipatu mamitasun hura galdurik, arrotz bihurtzen gara gainerakoentzat eta baita geure buruentzat ere...

JOXEK: Bakoitza bere buruaz erbestekorik?

ANDEREÑOAK: Bai. Orozgaintasunak horixe bera baitakar berarekin batera. Kontzientziak ezberdintasunaz konturarazten gaitu. Animaliek ezin dute hori sentitu eta guk ere ez animalien modura sentitzen garenean...

MIRENEK: Eta noiz sentitzen gara animaliak?

ANDEREÑOAK: Munduarekiko animaliek adinako berehalakotasuna sentitzen dugunean.

MIRENEK: Noiz gertatzen da hori?

ANDEREÑOAK: Besteen edota gure buruaren kontra jotzen ez dugunean. Lan egiten edo borrokan ez gabiltzanean. Etorkizunaren zain egon gabe orainaldiaz gozatzeko aukerari eusten diogunean...

JOXEK: Animaliaarena egiten ari garenean?

ANDEREÑOAK: Ez, erlijioak ematen digun lasaitasuna onartzen dugunean.

JOSUK: Zer diozu?

ANDEREÑOAK: Baldin eta gizatasuna animalia-izaera gainditzea bada, norbanakoaren kontzientzia sortzea eta, etorkizuna arrazoi, egunerokoari ezetza ematea, hori guztia ezeztatzen dugun neurrian, ari gara berriro erkidegoa nahiz hurkotasuna sentitzeko urratsak ematen.

JOXEK: Hori ez al da ezeztapenaren ezeztapena?

ANDEREÑOAK: Bai horixe...

JOSUK: Baina giza arrazoiaren atzean norbanakoaren kontzientzia, hau da, beldurraren eta heriotzaren aurreko etsipena dagoenez, gogobetetzeko balio duen jarrera pozgarrien premiari ere heldu behar zaio, ez aurrezkiak biltzeari gastatzeari baizik, gordetzearen ohiturari baino dohaintzari..., erlijioari, bada.

JOXEK: Hau bai dela ona!, gizakiok animalia-izaeragatik al daukagu erlijio-joera eta ez gizatasuna dela medio?

ANDEREÑOAK: Ez da guztiz horrela. Begira, gizakia ez da burujabe bihurtzen bere askatasuna alboratzen duen arte...

JOSUK: Nola?

ANDEREÑOAK: Nahi duguna egiten dugunean animaliak baino ez gara, aldiz, gertu dagoen gogoia asetzea baino urruti dagoen baina beharrezkotzat jotzen dugun helburuaren bila



joatea erabakitzen dugunean, gizartea ari gara eratzten eta gizaki bilakatzen gara.

JOSUK: Eta zergatik onartzen da berehala asebete beharrean etorkizunerako lan egitea?

ANDEREÑOAK: Lehen ere esan dizuet, bada, herioaren izuagatik!

JOXEK: Gizakiaren osagarriak ez dira makalak, beraz, beldurra eta askatasun eza.

ANDEREÑOAK: Horregatik bilatu behar ditu gizakiak beste osagarri batzuk, eta atsegina nahiz nahikaria lortzen ditu animalia-izaeraren joera den zarrastelkeriari eutsiz.

MIRENEK: Zarrastelkeria?

ANDEREÑOAK: Keria ala tasuna norberak jarri beharko luke mintzatzerakoan hizkuntzari utzi ordez...

MIRENEK: Baina funtsik gabeko etxekalte xahutzailea beti izango da gaitzegile!

JOSUK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Zarrastelkeriari aurre egiteko legeak eta debekuak sortu zituen gizakiak.

JOXEK: Baina baten batek bere gauzak xahutzeko zaletasuna eduki dezake eta hori ez da, berez, txarra.

ANDEREÑOAK: Jaidurak edo grinak dira gizarteak elkarbizitzarako menperatu nahi dituen joerak. Kontrolagaitz bezain arrisku-garriak izan daitezkeen irrikak.

JOSUK: Zeintzuk?

ANDEREÑOAK: Bi funtsean, maitatzeko hisia eta hiltzeko garra. Eros-a eta Tanatos-a.

JOXEK: Sexurako eta hilketarako gogoak?

ANDEREÑOAK: Orain ez, eskerrik asko!

JOXEK: Galdetu egin dut baina...

ANDEREÑOAK: A zer galdera!

JOXEK: Ez dizut zuri esan, aizu!

ANDEREÑOAK: Txantxetan ari nintzen, lasai... baina edozein gizartetan aurkitzen ditugun debekuen bi ardatz horiek dira, sexuaren eta hilketaren tabuak. Legeak, nahiz eta zenbait unetan onartu, bereizi gabeko heriotzak eta hala moduko sexu-harremanak galarazi egiten ditu. Horrela, gizakia bera helburu izatetik bitarteko izatera igarotzen da, gizartearen iraupenerako baliabidea besterik ez dena. Era berean, erkidegoa arriskuan jarriko duen edozein irrika gaitzetsi egin ohi da.

JOSUK: Eta debeku hori ez al da erlijioarekin batera zabaldu?

ANDEREÑOAK: Erlijioarekin bezainbeste arrazoiarekin, horixe esan nahi nizuen hasieratik...

JOSUK: Orduan bekatua eta xahuketa gauza bera dira...

ANDEREÑOAK: Eta erlijioa eta politika, osagarriak.

JOXEK: Hori ez da horrela. Politika ekonomia ere badelako, eta erlijioak, nola edo hala, bizitzari neurriak ematen laguntzen duelako. Biak dira, berez, gauza bera.

ANDEREÑOAK: Bai eta ez...

JOXEK: A zer-nolako irakasleak! ezin da inoiz ezertxo ere iluntasunetik atera zuen argibideei kasu eginez gero...

ANDEREÑOAK: Zuek dena baldin badakizue ez dizue inork ezer irakatsiko...

JOXEK: Ilustra gaitzazue, arren!

ANDEREÑOAK: Ekonomia, eta politika, gastuak eta gizarte-arauak orekatzeko jaio baziren ere, erlijioa gastua besterik ez da baina bata bestearekin doaz. Parrastatzeak, dohaintzak eta galerak behar ditu ekonomia-politikak, erlijioak baraua, zuhurtzia eta tentua bezainbeste. Erlijioa monoteista bada, batik bat.

JOSUK: Nola?

ANDEREÑOAK: Erlijioaren ardatza alegia, Jainko bakarreko erlijioa denean, ekonomia-  
ren eragina areagotu egiten baita harengan.

JOSUK: Zer esan nahi duzu?

ANDEREÑOAK: Egiptoarrek eta greziarrek ez zuten bekatu hitza ezagutu ere egiten, hori juduen monoteismoarekin batera hasi baitzen hedatzen. Politeismoak besteen jainkoen begirunea zekarren bitartean, monoteismoak bes-

teekiko intolerantzia eta, beraz, xenofobia ere ekarri zuen. Areago oraindik, lehen esan bezala, ekonomia Jaungoiko bakarrari zor diogu.

MIRENEK: Eta kristauak edota mahometarrak?

ANDEREÑOAK: Kristautasuna Bibliaren irakurketa greziarra da eta Islama, berriz, kristautasunaren erritu zaharrak arabiarrek beren erara moldaturik...

JOSUK: Baina ez al duzu esan politika eta erlijioa ezberdinak bezain osagarriak direla...

ANDEREÑOAK: Barka...bai eta ez, esan dut nik...

JOSUK: Argiago azaltzen ez baldin baduzu, ez dut uste ezer ulertuko dugunik...

ANDEREÑOAK: Dolarretan zer dago idatzita?

JOSUK: Nik zer dakit?

ANDEREÑOAK: *In God we trust...*

JOXEK: Eta?

ANDEREÑOAK: Jaungoikoarekin fidatzen gara!

JOSUK: Eta?

ANDEREÑOAK: Benetan fedea eduki behar dela paper soil bati balioa emateko! Eta fede hori erlijio monoteistak oinarritu, landu eta zabaldu egin zuela...

JOSUK: Ni, behintzat, fedegabea nauzue...

MIRENEK: Nire etxean dolarea ere badago eta ez da paperezkoa...

JOXEK: Hara bestea!

ANDEREÑOAK: Zer diozu?

MIRENEK: Baserrian, sagardoa egiteko dolarea badugula.

JOSUK: Txantxetan ala?

ANDEREÑOAK: Ez zaio arrazoirik falta.

JOSUK: Emakumezkoak beti elkar defendatzen...

ANDEREÑOAK: Mutikoak gizontxo mitikoak izan nahian...

JOXEK: Zergatik dauka arrazoia Mirenek bere sagardotegiko dolarea diru iparramerikarrarekin alderatu duenean?

ANDEREÑOAK: Mexiko ere Ipar Amerikan dagoelako eta, hango Estatu Batuen hastapenetan, diruari izena ematerakoan, Mexikon erabili ohi zuten bat, dolarea, hautatu zutelako. Mexikon, aldiz, pisua izendatu zuten izentzat beren sosaren fedegabeek ezagut zezaten diru horren truk zilar edota urrezko pisukopuru jakinen bat bazegoela. Izan ere, dolarea, aipatutako moneta hori inprimatzeko erabiltzen zuten zapalgailua edo prentsa biterik ez baitzen. Metonimia hutsa.

JOSUK: Ez dakit zertaz ari zaren, guri adarra jotzen, literaturaz, erlijioaz edota ustezko

elkarbizitzaren ikasgai berriaz, baina...dolarra, euskaratik al dator ?

ANDEREÑOAK: Jakina, Mexikotik barna. Jakin-minik gabe ezin baita inongo ikasgairik barneratu.

MIRENEK: Eta dolarea ere literatura al da?

ANDEREÑOAK: Zure etxekoa ala Amerikako Estatu Batuetakoa?

MIRENEK: Ipar Amerikako sosa.

ANDEREÑOAK: Ezin esan literatura denik baina bai, ordea, komunikatzeko ere balio duela eta, berez, balio hori metaforikoa baino ez dela. Profetez profitatzeko profesorea nauzue. Diruan, literaturan, politikan, ekonomian edota erlijioan ezarri ohi den fedez aritzen dena.

JOXEK: Zu endredamakila nahaslea besterik ez zara!

ANDEREÑOAK: Makila gutxi nik. Beharrik ere ez..., zuek zaudete, ordea, zigorturik eta makilapean.

JOXEK: Eta zu, egoera makilatzen?

ANDEREÑOAK: Zeuek esan. Nahi baldin baduzue banoa eta bakarrik geldituko zarete filosofia irakaslearen zain zeuena makinatzen...

JOSUK: Makina bat hitz-joko eginda ere ez gaituzu nahastuko. Zergatik eskatzen dute fede berbera erlijioak eta diruak?

ANDEREÑOAK: Berez, dirua etorkizunera-ko hitza besterik ez baita. Beste noizbait eta beste nonbaiten zurea den zerbaiten orde emango dizutenaren agindua. Aitorpena. Eta horretan sinesteko Aitorrengan fedea behar da.

JOXEK: Berriro ere bazterrak nahasten!

ANDEREÑOAK: Ez da txantxa ez eta txan-  
txorik ere. Zuk nahi duzuna eskuratzeko, dau-  
kanari eskatu beharko zenioke, edo bestela,  
jabea akabatu beharko zenuke, edo lapurreta  
egin, edota zuk duzun zerbaitez trukatu...,  
azken hau aukeratu ezker, eta ordaina diru-  
tan onartu, ezinbestekoa izango zaizu susmo  
guztiak alboratzea eta geroan akordioaren  
emaitza gauzatuko denaren ustea izatea. Fede  
kontua beraz.

JOSUK: Ez, diruak balio du.

ANDEREÑOAK: Zergatik?

JOSUK: Bertan jartzen duelako. Idatzita  
dago.

ANDEREÑOAK: Zuk idazkian daukazu  
fedea, beraz?

JOSUK: Ez, adostutakoan.

ANDEREÑOAK: Politikan, bada...

JOSUK: Demagun elkarbizitzan.

ANDEREÑOAK: Erljioan orduan.

JOSUK: Lehen Miren bezala hasi behar al  
duzu orain?

MIRENEK: Zer egin dut nik?

JOSUK: Egin, ezer ez..., esan egin duzu, juduak ala palestinarrak?; eta gure andereñoak, berriz, dena politika eta erlijioa dela dio, etengabe.

ANDEREÑOAK: Nik esan dizut elkarbizitza erlijioa dela eta politika, ere bai. Pentsa, erlijioaren jatorria *re-ligare* da. Zuek, noski, ligatzea zer den badakizuenez *re-ligare* horrekin zer adierazi nahi den jakin beharko zenukete: gizakien arteko lotura. Horixe baita erlijioak eskaini ohi duena.

JOSUK: Baina erlijioak izan dira gizarteliskar gehienen iturburu, ordea.

ANDEREÑOAK: Garaian garaikoa. Giza-kion historia oso luzea da eta, zenbait sasoitan, gizataldeak trinkotzeko baliagarria izan dena bestetan, aldiz, traba bihurtu izan da. Europan, adibidez, gizarteak tinkotze-jardunean erlijioen balioa ezin da kolokan jarri Pizkundeko erlijio-gerrak irazeki arte. Ordutik hona, ezin esan erlijioak herrien irmotasunean lagungarri izan direnik.

JOSUK: Eta zer izan da, bada, pizkundetik oraindaino, gizarteen elkarbizitzaardatza?

ANDEREÑOAK: Europan, behintzat, nazionalismoa.



**6. Ate hirukoitza:**



JOXEK: Hori da hori!. Nik uste nuen erlijioaz edo politikaz hitz egin behar izango genuela baina nazionalismoari buruz aritzea beste gauza bat da.

ANDEREÑOAK: Gauza bera da mutiko!

JOXEK: Baita zera ere!

ANDEREÑOAK: Frantziako Iraultzaren karietara “Gizonaren Eskubideen Agiria” plazaratu zenean...

MIRENEK: Ez al da *gizakiona*?

ANDEREÑOAK: Ez, zoritxarrez. Galde egiozu bestela zergatik Iraultzak berak Olimpe de Gournes izeneko andrea akabatu zuen, aipatutako agirian emakumezkoen eskubideak aldarrikatu nahi izateagatik, hain zuzen. Iraultza gizonena soilik izan zen, tamalez...

JOXEK: Eta?

ANDEREÑOAK: Testu horretan, historian lehenengo aldiz, subirautza herrian datzala eta ez erregearengan idatzita utzi zutela. Hortik aurrera burujabetza, bada, nazioari dagokio eta ez monarkiari orduko nazionalismoa ezkerrekoa izan baitzen. Ikuspegi-aldaketa horrek bukatu zuen Erdi Aroan zegoen otseintza

(morrontza/neskametza). Hasiera besterik ez zen izan, zeren mundu osoan zehar zabalduko mezu horrek Nazioen birsortze konstituzionala ekarri baitzuen eta antzinako erregeekiko mendekotasunaren partez nazioa bihurtu zen norbanakoen eskubideen berme.

JOXEK: Horixe esan dut nik beti. Nazionalismoa ezkerrekoa bezainbeste herritarrentzat berme ere badela.

ANDEREÑOAK: Halere, ez da beti horrela izan...

JOXEK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Egia da XIX. mendeko lehenengo nazionalismo hura, errepublikarra zen neurrian, aurreko mendekotasunak hautsi egin zituela, baina XX. mendean, aldiz, tradizioari itsatsitako zintasanak eskuineko nazionalismoari bide eman zion eta inperialista bezain militarista izan zen mendea ekarri zigun.

JOXEK: Beste bat nazionalismoa gaiztoa dela diona...

ANDEREÑOAK: Ez jarri nire ahoan neronek esan ez dudana. Egon, badago, herrien eta herritarren askapena bilatzen duen nazionalismorik, baina, ezin uka, arrazakerian oinarritutako nazionalismoa ere badagoela.

MIRENEK: Eta horietariko zein dagokie juduei eta zein palestinarrei?

JOXEK: Eta zein espainiarrei eta zein euskaldunei?

JOSUK: Edota marokorrei eta sahararrei..., baina erlijioa eta nazionalismoa gauza bera al dira?

ANDEREÑOAK: Zeini erantzungo diot ?

JOSUK: Denei..., nahiz eta nik galdetutakoa zuk batere azaldu gabe bota duzun lehenengo baieztapena izan.

ANDEREÑOAK: Egia esanda, dagoeneko gehiegi hitz egin dut eta botatako asko behar bezala argitu gabe gelditu da ziur aski...

Ez, ez dut uste erlijioak eta nazionalismoak gauza bera direnik baina une jakin batetik aurrera nazioen trinkotasuna bermatzen omen zuten erlijioek galdu egin zuten horretarako gaitasuna eta, haien partez, ideologia nazionalistek ekin zioten gizartearen eraketari. Arazoa zeretik dator, garai batean erlijio bakoitzaren barruan batek gailendu behar zuelako tesiaren moduan eta, horren arabera, inguruko erlijioen aurka borrokatu zuten bezala, nazioen artean ere, badaudela batzuk besteen gainean ezarri direnak. Historian arazo bera da bi garai desberdinetan, boterearen egiturak eraikitzearena da arazoa, baina erlijioa eta ideologia nazionalak horretarako bi-tartekoak baino ez dira.

MIRENEK: Eta juduak eta palestinarrak?

ANDEREÑOAK: Horri buruz esan beharko nizuke juduak esatea ez dela batere zuzena...

MIRENEK: Ni ez naiz antisemita, gero!

ANDEREÑOAK: Ez eta antikamita ere... badakit. Baina Israel estatua, Espainia bezala, ez da egitura politiko konfesionala. Beraz, israeldar guztiak ez dira judutarrak. Areago, lehen, sionismoari buruz hitz egin dugunean, argi gelditu omen da Israel estatua sionismoak, hau da, nazionalismoak, eraiki zuela.

MIRENEK: Espainia eta Israel estatu laikoak al dira?

ANDEREÑOAK: Ezta pentsatu ere... Espainian, Eliza katolikoaren hezkuntza-sistema osoa, adibidez, Estatuak ordaintzen duen neurri berean, Elizari berari ere berea ordaindu egiten dio. Halaber, Israelen, Juduen eskubideak herritar arruntez harago doaz. Judu ortodoxoak Estatuaren bizkarrezur den derri-gorrezko soldaduskaz kanpo egoteaz gain *Knsseten* (Israelgo Legebiltzarrean) zuzeneko ordezkaritza ere badute. Egun adibidez, Legebiltzarra hamazazpi alderdiren artean banatuta dago eta haietariko lau alderdi erlijiosoak dira eta beste bost, etnikoak (nazioaren jatorri-interes desberdinak defenditzen dituztenak...). Israelgo biztanleriaren laurdena arabiar jatorrikoa da (Palestinar Nazio Agintaritzaz apartekoa) baina jaiegun izan ohi diren

larunbatetan, esaterako, etxeetako igogailuak etengabe doaz goitik behera eta alderantziz solairu guztietan geratuz, juduen egun sakratuetan ezin baita ezer piztu. Ustezko akonfessionaltasuna, bada, ez omen da denentzat berdina.

JOSUK: Ardiak bezala...

ANDEREÑOAK: Nola ardiak?





## 7. Lehoiaren atea:



JOSUK: Ene herrian sekulako kalapita piztu da ardien ustezko berdintasunaz...

ANDEREÑOAK: Zer diozu?

JOSUK: Hemengo artalde osoa latxa arrazako ardiez osaturik zegoen eta, jakina, haien esneaz baliaturik egin izan da bertoko gazta, horregatik Idiazabal jatorrizko izendapena eman izan diote, bertakoek egiteaz gain latxaren esnea baita funtsezko lehengaia. Gauza da, duela zenbait hilabete, bertako baserritar batek judu-arrazako ardi batzuk ekarri zituela eta konturatu zela haiek hemengo lauk adina esne ematen zutela eta, gainera, ez zegoen haiek mendira eramane beharrik ukuiluan egoteko sortuak direlako. Ondorioz, artaldeak aldatuz joan ziren. Ardi juduak geroz eta gehiago eta bertakoak, berriz, geroz eta gutxiago... horrela, gazta egiteko esnea ardi eta lan gutxiagoz ekoiztea erdietsi zuen, baina...

ANDEREÑOAK: Non gertatu da baina hori?

JOXEK: Jatorrizko Izendapenaren Kontseiluak ez diola hori baimendu!

ANDEREÑOAK: Zergatik?

JOXEK: Arraza haietariko ardiak desberdinak eta hemengoak ez direlako!

JOSUK: Baserritarrak dio hemengoak direla. Hementxe sortu, jaio eta hazi direla baina gainerako artzainek beste kasta batekoak direla diote eta baserritarrak euskal izendapenekeo gazta egiteko baimenik gabe gelditu da.

ANDEREÑOAK: Baina, baserritar horri kasu eginez gero, bertako latxa arraza, ezinbestean, ordezkaturia eta desagerrarazia izango litzateke...

JOSUK: Jakina, beste arraza judu hori askoz errentagarriagoa baita!

ANDEREÑOAK: Eta zer deritzozu horri?

JOSUK: Baserritarrak ez duela arrazen arteko liskarrik ordaindu behar...

ANDEREÑOAK: Nork ordaindu behar du, bada, latxak?

JOXEK: Nik uste dut, berez, bi arrazak ez direla parekoak, eta hortik omen dator nahasketaketa.

MIRENEK: Baina ez al dugu ikasi arraza guztiak berdinak izan behar dutela?

ANDEREÑOAK: Gizakion artean bai, bederen...

MIRENEK: Eta animalien munduan?

ANDEREÑOAK: Hortxe ez nago horren seguru...

MIRENEK: Baina gizakia ez al da ba abere mota bat soilik?

ANDEREÑOAK: Gizakia animalia dela ez dago dudarik, baina hori baino gehiago ere bada... eta, azkeneraino joanez gero, animalia-izaeraz haragoko biziduna dela esango nuke...

MIRENEK: Gizakiok geurez animaliak ez garela adierazi nahi al duzu?

ANDEREÑOAK: Ez guztiz behintzat..., eta honetaz mintzatzeko aritzea bera horren seinale...

MIRENEK: Baina animaliek ere badute beren hizkuntza...

ANDEREÑOAK: Jakina, baina komunikatzeko bakarrik...

MIRENEK: Eta guk?

ANDEREÑOAK: Gureak hausnarketarako balio du eta horrek animaliekiko etena dakar berarekin batera kulturarako gaitasuna ekartzeko baitu...

MIRENEK: Animaliek, hizkuntzaren jabe izateaz gain, kultura ere badaukate...

ANDEREÑOAK: Noski, baina haien kultura, haien mintzaira bezainbeste, beste maila batekoa da eta ezin da gizakionarekin parekatu...

MIRENEK: Zergatik ez?

ANDEREÑOAK: Gogoetak sortzeko eta bererenganatzeko ahalmenik ez dutelako..., ikurren erabileratik at daudelako, hain zuzen ere.

JOXEK: Ikurrinak egin al gaitu gizaki?

ANDEREÑOAK: Ni baiezkoan nago, bederen...

JOXEK: Benetan ari al zara?

ANDEREÑOAK: Eta penetan, horrek ekarri baitu era berean gizadiaren sorrera eta haien galeraren hazia...

JOSUK: Transgenikoek bezala?

ANDEREÑOAK: Antzeratsu...

MIRENEK: Ez dut ezer ulertzen!

**8. Siongo atea:**





ANDEREÑOAK: Komunikatzeko baino gehiago, sinboloak sortzeko balio duen mintzairaren jabe dena ez dago adierazitakoari loturik eta, gezurra esateko gaitasuna eskuraturik, ahalmen horren mende gelditzen da betiko... hortxe dago gaitzaren hazia eta, halaber, gizakia aske egiten duena.

JOXEK: Beraz, mendekotasunari esker al gara aske gizakiok?

ANDEREÑOAK: Bai horixe!, animaliak ez bezala...

JOSUK: Eta gaiztoak garelako al gara askeak?

ANDEREÑOAK: Gaiztoak izateko aukera daukagulako..., gure hizkuntzak gezurri-gai bihurtzen gaituelako.

MIRENEK: Gizonak bai gezurriak direla...

JOSUK: Bada, andereñoak botatzen dituenak ere ez dira enbusteria txikiak... enbuste atxikiak baizik.

JOXEK: Kasu honetan, nire ustetan, falaziak deitu ohi zaizkie...

ANDEREÑOAK: Nik ez nizuen inolako ziririk sartu nahi. Aldiz, elkarbizitzarako zenbait kontu azaldu eta argitu nahi nizuen...

JOXEK: Kontuak behintzat kontatu dizkiguzu...

JOSUK: Atera kontuak!

MIRENEK: Zuek kontu-kontari baina ni ez naiz argitzen ari...

ANDEREÑOAK: Bada, oso argi dago. Gizakia da bizirauteko bere arrazakoen premia handia daukan bizidun bakarra. Animaliak jaio eta berehala ibiltzeko gauza diren bitartean, haurrek bereen beharra dute urteetan zehar eta, heziketa hori dela medio soilik, garatzeko aukera eskura bide dute. Gizadirik gabe, beraz, gizakirik ez.

MIRENEK: Orduan, gizakiak ezin izango al du inoiz aske izan?

ANDEREÑOAK: Lehen esan bezala, ustezko askatasuna beharrei ihes egitean datza... eta, animaliek ez bezala, guk badugu, sinbolotarako gaitasunean oinarrituta, horretarako aukerarik.

JOSUK: Aukera, bekatariak izateko...

ANDEREÑOAK: Nahi duzun moduan deitu.

JOXEK: Nik bekalariak esango nuke..., bekak lortzekoarena aitaturko nuke gezurra erabiltzeko aukera legez...

ANDEREÑOAK: Berrito diotsuet, nahi duzun bezala izendatu, baina, zuek bezala, animalien zintzotasunaz harago dagoen haurrak

elkarbizitza zer den ulertzeaz aparte, haren aldeko hautua egin beharko du...eta horretan ez dago argitasunaren beharrik, nahi izatea edo atxikimendua izatea baizik...

JOSUK: Txiki omen du hark eta jai hik...

JOXEK: Kokoteraino naukazu zure bertsolari-sen gaizto bezain txar horrekin...

ANDEREÑOAK: Bistan da elkarbizitzaren arazoak arrazazkoa edo erlijioaren partea bada, baita nahiaren, atxikimenduaren, hezkuntzaren edota hizkuntzarena ere... eta ezin dela dena horietariko baten menpe bakarrik ulertu.

MIRENEK: Gaiztakeriari arrazoiak bilatu nahi izatea alperrik da andereño..., makurkeria bera baita errebeskeria orenen iturri bakarra.

ANDEREÑOAK: Zu zara, beraz, gaizki ulertu duena. Izan ere, edozein okerkeria, baita basatiena delarik ere, irudika ezina baita, berez. Kaltetu edo biktimaren sufrikarioa banakakoa izaten delako beti. Alferrikakoa dena, aldiz, "Holokaustoa" eta antzerako triskantzak direla eta, oroitarriak eraiki nahi izatea da.

MIRENEK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Makurkeriari buruzko oroitzapenak eta oroigarriak ezin direlako berdintzat hartu...

MIRENEK: Nola?

ANDEREÑOAK: Ankerra dena edertasunaren bidez azaldu nahi izatea antzua delako taxuzko oroigarriak egitea ezinezkoa den neurrian, alde batetik. Eta bestetik, lehen esan bezala, halakoetan kaltetuak izan direnen bizipenak modu bateratuan orokortzea mukuraren funtsa faltsutzea izango litzatekeelako. Minak hamaika aurpegi baitauka.

MIRENEK: Baina “Holokaustoa” eta antzerako triskantza horiek kolektiboak izan dira eta giza taldeek burutu ohi dituzte... erlijio, politika, ekonomia edo nazionalismoak direla medio.

ANDEREÑOAK: Gaiztakeria gizartearen baitan dagoelako haren aurka nola ekin beharra dagoen da toki bakoitzean aurkitzeko premia dagoena.

JOXEK: Nork nor babestu?

ANDEREÑOAK: Ez, horrela adierazia behintzat..., gizaki bakoitzari behar duen aparoa eta laguntza bermatuko dizkion gizarte-eredua da bilatu beharrekoa.

JOSUK: Nork nori zor?

ANDEREÑOAK: Ez egin barrerik, gero! Euskara zaharrearantz eskubideak izendatzeko horixe zen erabilitako adierazpidea: zorra. Hau da, jendeak ez du, berez, inolako eskubiderik begirunea zor zaiola baino. Begirantza hartan oinarritutako gizarteak bakarrik ziurta dezake denentzako elkarbizitza.

MIRENEK: Eta, ba al dago, demagun, juduak zein palestinarrak sostengatuko dituen gizarte egiturarik?

JOSUK: Nekez..., edo batere ez!

JOXEK: Nori berea ematea litzateke zuzena...

MIRENEK: Eta Xalimen hiria, Jerusalem hura, zeinena da?

JOSUK: Gaiztoena!

ANDEREÑOAK: Ez dakit bera bakearen hiri inoiz izan ote den edo Xalim izeneko gudari anker baten hiriburu soilik, baina gizakion babeslekuaren irudia eta gizarte zuzenaren itxaropena iradoki dituen ikurra dugu, kontraesan eta guzti...

JOSUK: Haren kontraesanei erreparatu beharko diegu, beraz !

JOXEK: Kontraizanei?

MIRENEK: Gizonezkoek beti kontra!

ANDEREÑOAK: Agian, zerbaiten aurka hezi egiten gara beti... *Commedia dell'Arte* sortu zenean, adibidez, eta hartan oinarritzen omen da antzerki garaikidea, pertsonaia bakoitza beste baten aurka jarri ohi zuten beti. "Mata-moros" deitzen zioten soldadu espainiar harroputzaren aurrean, demagun, "Politxinela" konkordunak hitz egiten zuen besteari arrapostu eginez. Horrela, zirtoz nahiz ihardes-

penez, hezi ziren greziarrak eta latindarrak, Bergamaskoak eta Napolikoak...

MIRENEK: Elkarbizitza, bada, besteen kontra aritzea al da?

ANDEREÑOAK: Ez, bakoitzari gizartean bizi ahal izateko behar duen euskarria aurkitzeko heziketa ematea litzateke.

JOXEK: Eta hori, norberaren arabera ala bizi den gizartearen arabera ulertu behar da?

## 9. Herodesen atea:





ANDEREÑOAK: Bai gizabanako bakoitza eta baita gizartea ere aldatuz doaz etengabe...

JOXEK: Orduan, ikasi orduko, irakatsitakoak ez du balio izango...

ANDEREÑOAK: Ez dago ezer okerragorik batere irakatsi nahi ez izatea baino. Begira, bestela, Pinotxori ere zer gertatu zitzaion...

JOSUK: Sudurra luzatu zitzaiola?

MIRENEK: Baina hori ez al zen ba gezurrak esateagatik izan?

ANDEREÑOAK: Ez. Zuek ez duzue ipuina irakurri.

JOXEK: Nik filma ikusi dut...

ANDEREÑOAK: Ez da gauza bera...

JOSUK: Nik berari buruzko marrazki bizidunak ikusi ditut telebistan...

ANDEREÑOAK: Horrek ere ez du balio. Zapatariak egurrezko kopina egin zuenean panpinatxoa besterik ez zen eta haur bihurtu arren, bizirik ibiltzeko gai bazen ere, gizartean bizitzeko izan behar zuen portaeraz ez zen jabetzen, hori ezinbestean ikasten delako, baina bere egileari hura adierazten ausartzen ez zenez, gezurra esaten zion eta, aldi

bakoitzean, sudurra geroz eta gehiago luzatzen zitzaion...

JOSUK: Beraz, nik arrazoia, porrontxoa geroz eta handiagoa zeukan...

ANDEREÑOAK: Bai, jakina. Baina hori oinarri-oinarrian, ez zitzaion gertatu gezurrak esateagatik, gai hura ikasi ez zuelako baizik.

JOSUK: Orain galdetzen baduzu “zein izan zen film bateko protagonista, jarraitzaile asko izan zituena eta aita, arotza zuena?”, gehienek Pinotxo erantzungo dute Kristo baino lehenago.

ANDEREÑOAK: Horrek berak adierazten du gure gizartearen aldaketa eta horren ondoriozko kontraesanak. Dagoeneko, erlijoak zeukan gizarte-lehentasuna galdu badu ere, hori azaleko aldarapena besterik ez da, gizartea trinkotzeko arau etiko guztiak ikusezin bihurtu den erlijiotik datoz eta.

ANDEREÑOAK: Beno, azokatik, agian...

MIRENEK: Nola?

ANDEREÑOAK: Giza moralaren jatorria behintzat truke zuzenetik datorrela diote...

JOXEK: Eta ezkutuko irizpide haiek agintzen segitzen al dute?

ANDEREÑOAK: Agintzen dutenen irizpideak izaten dira ezkutukoak...

MIRENEK: Hori ez al da aldatu?

ANDEREÑOAK: Aldatu direnak azoka eta moralaren azalpenak dira...

JOXEK: Zertan?

ANDEREÑOAK: Historian zehar sortutako nazioek beren herrien ongizatea bermatzen zutelakoan zilegi bihurtzen zituzten tokiko gizarte-egiturak, baina egun, aldiz, mundu mailako merkataritzak mendeetan zehar erai- kitako tokiko ustezko berme haiek birrindu egin ditu...

MIRENEK: Jadanik ez al dago gizarte- bermerik?

ANDEREÑOAK: Orain arte estatuak beren hiritarren babesaz arduratzen baziren ere, datozen garaiotan ezin esan anparo hura lehen bezala bermatzeko gauza izango direnik.

MIRENEK: Azoka ere ikusezin bihurtu al da?

ANDEREÑOAK: Ez, truke zuzena da desa- gertu dena eta, berarekin batera, morala eta bermeak..., zuk pentsa, zoologiko batean hesi guztiak kendu ezkerro zeinen legea nagusituko litzatekeen...

JOSUK: Lehoiarena?

ANDEREÑOAK: Lehoiaren aginpidean, haren tiraniapean, bada, eskubide gutxi.. .

JOXEK: Estatuek ere ez dute eskubide as- korik bermatu orain arte...

JOSUK: Esaiezu palestinarrei edo euskaldunoi...

JOXEK: Haiei ere mundu mailako aldaketak eragingo die...

JOSUK: Beraz, ez Palestinan, ezta hemen ere, ez dugu konponketa errazik.

ANDEREÑOAK: Inondik inora ere.

JOSUK: Ez Xalimen hirian ez eta Xabinen herrian ere...

MIRENEK: Izugarria da.

ANDEREÑOAK: Egia, izua sortzen du.

MIRENEK: Eta sufrikario horretan jendea arituko al da etengabe hiltzen?

ANDEREÑOAK: Hura nola eten batek daki...

JOXEK: Nork daki?

JOSUK: Herodesek!

ANDEREÑOAK: Ez mutiko, esamoldea da, euskaraz euria, eguzkia edo elurra egiten duela adierazteko erabili ohi duguna..

JOSUK: Behar bada euria egiten duenak jakingo du...

JOXEK: Jaungoikoek?

JOSUK: Baina, haietariko zeinek? Gaiztoenak?

**10. Urrezko atea:**



ANDEREÑOAK: Horretarako gure gogo  
astindu beharko dugu.

JOXEK: Zergatik?

ANDEREÑOAK: Oroimen edo gogo beste-  
rik ez garelako...

JOXEK: Baina, ez al duzu esan mundua  
aldatzen ari dela eta aurrekoak ez duela batere  
balio?

ANDEREÑOAK: Nik ez dut esan iraganaz  
oroitzea baliagarria ez denik nahiz eta pentsa-  
tzearen bidea betiko gaiak modu berriaz  
azaltzeko eta, halaber, gai berriak betiko  
moduz azaltzeko gaitasuna izan.

JOSUK: Hasi al gara berriro ere tutik  
ulertzen ez diren esaerak botatzen?

ANDEREÑOAK: Zuk ez duzu ezer ulertu  
nahi, ordea... orain arte ikasten zuenarekin  
aski zuen edonork bizitza osoan irauteko.  
Lanbideak ere halakoxeak ziren, hau da, fami-  
liaren bidez eskuratuak eta hil arteraino.  
Dagoeneko horrek ez du balio. Etengabeko  
prestakuntzaren beharra dago aldatetaz alda-  
keta dabilen gizarteari egokitzeko edo, izate-  
kotan, berau ere eraldatu ahal izateko.

MIRENEK: Hori egia da..., baina edozein gauza ikasteko ere ezinbestekoa da memoria lantzea.

ANDEREÑOAK: Memoriari “mnmosine” deitu zioten greziarrek jainkosa bat zelako. Erromatarrentzat, aldiz, moneta izena zuen hark zeren Junoren tenpluan zegoen eta halako epitetoa erabiltzen zuten berari buruz hitz egiterakoan, izan ere, aipatutako tenplu hartan monetak egiten baitziren.

JOXEK: Baina ez al zenuen esaten diruak fedea behar zuela? Sosak ere jainkosak direla esango diguzu orain?

ANDEREÑOAK: Berriro diotsuet, bada, diruaren atzean fedea eta memoria badago egon, moneta baita iraganeko nahiz egungo jainkosa, orain inoiz baino gurtuago izaten ari dena...

JOSUK: Baina diruak askatasuna bermatzen du..., beharretatik libratzeko balio baitu...

ANDEREÑOAK: Balizko askatasunaz, diruaz edota nazionalismoaz gauza bera esan daiteke... guztiak ere bizitzaren osagarriak direla...beren neurrian!. Hau da, bizitzeko gatza edo glukosa funtsezkoak izan arren, bizikalitaterako kaltegarri ere bihur daitezke...

MIRENEK: Zerk bermatuko digu, beraz, kalitatezko elkarbizitza? Izan ere, nik,



behintzat, ez dut uste “bizikidetza ” bezalako ikasgaietan sasi-politika edo hiriari dagokion etika irakatsi behar denik... Bizitzaren arlo praktiko bezain naturalek kezkatzen naute ni... haur jaioberriak nola artatu edota agure-atso zaharrak nola lagundu...

ANDEREÑOAK: Baina gai haiek kezka moralak sortzen dituzte, haurdunaldia edo bizia eteteaz, abortuaz nahiz eutanasi az hitz egin beharra dago...

MIRENEK: Nahi duzuna..., baina gehiegi mintzatu ohi da eskolan, premia zehatzei erantzuteari muzin eginez betiere...

JOSUK: Eskarmentua da falta dena...

ANDEREÑOAK: Esperientzia, ariketa praktikokoetatik bezainbeste, eguneroko jardunetik kanpo gelditzen garenenean suertatu ohi da. Denboraren jarriotik at gaudenean esperientzia mota bat hasten da garatzen, estetiko nahiz erlijioso...

JOSUK: Lotan nagoenean ere bai?

ANDEREÑOAK: Bai zera!, zuk lotan zaudela ere ezin diozu pentsatzeari uzi... arnasa ez hartzeko deliberoa hartu arren, ezin dituzu nahita ere pentsamenduak alboratu...; esperientziak, berriz, pentsamendu edo sententzio baten inguruan soilik finkatzea eragiten du. Mundutik aparte.

JOXEK: Irakurtzen bezala?

ANDEREÑOAK: Irakurtzean edo artelan bat begiratzean gerta daiteke hori, jakina, baita Elizan edo Meskitan ere...

JOXEK: Edo gai jakin bat sakondu nahi dugunean...

ANDEREÑOAK: Adibidez, badago Imre Kertész izeneko Literatur Nobel Sariduna “Holokaustoa” gogoratzeko hari buruzko idazlanak besterik landu izan ez dituenak. Memoriarekin batera hizkuntza ere ebatsi ziotelakoan “Mintzaira erbesteratua” argitaratu zuenean, bere nazionalismoaren aurkako ohiko jarrera leundu zuen Jerusalemeko joaterakoan, konturatu zelako juduek eskubidea zutela beren nazioa aldarrikatzeko eta defendatzeko. Antinazi sutsuenari nazionalismoa ulertaraztea da Xalimen hiriak utzi digun mirari haietariko azkena...

JOXEK: Hori ez da Jerusalemen bakarrik gertatzen... Espainian ere makina bat antinazionalista badaude erabat espainiarrak direla konturatzen ez omen direnak...

ANDEREÑOAK: Izan ere, nazionalista ez izatea gizakia ez izatea bezala litzateke. Bandorak askatu baikintuen abere izatetik...

JOSUK: Eta aberats bihurtu... abertzale batzuk behintzat...

JOXEK: Kolesterol gehiegitxo?

ANDEREÑOAK: Zer?

JOXEK: Ez al duzu esan azukrea ona eta txarra izan daitekeela aldi berean?

ANDEREÑOAK: Bai, horixe!

JOXEK: Bada, kolesterolak ere onak eta txarrak daude...

MIRENEK: Baina palestinarrak ere okupatuak, kolpatuak, erbesterratuak eta zapalduak izaten ari dira...

ANDEREÑOAK: Juduak lehen izan ziren bezala, edo euskaldunak orain euskaldun besterik izan nahi ez dutenetik diren bezala, behinik behin. Horregatik, herri bakoitzaren ahots direnek, idazleek, artistek, kazetariak, antropologoak, historialariek, hezitzaileak, politikoenak... antzerako gaiak hartzen dituzte memoria erabiliz bakoitzaren herri-sufrimendu, eskarmentu nahiz esperientziak ezagutarazteko eta bakoitzari zor zaiona aldarrikatzeko.

JOSUK: Nori berea aspaldiko legea!

JOXEK: Hor dago koska, ordea...



**11. Ate berria:**



ANDEREÑOAK: Hori ez, zuk esan bezala, betiko jarrera izan da."Nihil novi sub caelo"...

JOSUK: Hara bestea!

ANDEREÑOAK: Alegia, ez dagoela, horretan behintzat, inolako berritasunik zerupear...

JOSUK: Zerpear? Horrela hitz egiten du Bart Simpsonak...

ANDEREÑOAK: Bai, alajaina, horrela mintzatzeagatik ezagutzen dituzue zuek bai Biblia baita oinarritzko kultura klasikoen erreferentziak... Simpsondarrenean ikusi dituzuelako telebistan!

JOXEK: Baina herri bakoitzaren aldarrikapena egin ohi duten idazleek, artistek, antropologoek edota historialariek, ez al dira, era bertsuan, ikertzaileak eta sortzaileak? Ez al dira konturatzen betiko eskemak errepikatzen ari direla beren esparruetara egokituta?

ANDEREÑOAK: Ez al dira konturatzen berak direla, gizaki bezala, gizarteak moldatuak eta, beraz, berrikuntza eta berritasuna ezin direla berdinak izan .

JOSUK: Igarkizuna al da?

ANDEREÑOAK: Ez, noski! Ezaguera memorian oinarritzen den bitartean berrikuntzak

ahaztura dakarrelako. Berritasuna, aldiz, ezin du inork asmatu gertatu aurretik, erabat berria dena inoiz suertatuko ez balitz ere ez bailuke inortxok ere haren falta sentituko, hura sortu arte haren beharrik edo izateko aukera bera ere ez zen aintzakotzat hartzen eta.

JOXEK: Iragarkizuna ez bada ere, ulertzen zaila bada, gero!... adibiderik?

ANDEREÑOAK: New Yorken irailaren ha-  
maikan gertatu zena.

JOXEK: Dorre Bikien aurkako atentatua?

ANDEREÑOAK: Huraxe bera!

JOXEK: Baina aurretik makina bat aten-  
tatu izan ziren... baita dorre bikien aurkako  
saiakerak ere!

ANDEREÑOAK: Baina azkeneko hura ez  
zuen inork espero!

JOSUK: Hura ekintza armatu bat gehiago  
izan zen, besterik ez...

ANDEREÑOAK: Eta non daude armak?  
Hegazkin zibilak ziren. Haien gidariak herri-  
tarrak eta helburua ere ez zen militarra izan...

MIRENEK: Ekintza terrorista izan zen!

ANDEREÑOAK: Israelgo armadak pertsona  
multzo bat Gazan akabatzen duenean zer da,  
ekintza armatua ala ekintza terrorista?

(...)



ANDEREÑOAK: Eta palestinarrek misilen bat edo beste lehergailu motaren bat Israelen aurka jaurtitzen duenean, zer dugu?

JOSUK: Ekintza armatua!

MIRENEK: Terrorista, faborez...!

ANDEREÑOAK: Zergatik?

MIRENEK: Israel, haren aurka edozein iritzi edukita ere, estatu demokratikoa delako eta palestinarren ekintza horiek gehienak, berriz, herri xehearen kontra burutzen dituztelako.

JOSUK: Israel okupatzailea da eta palestinarrek, ahal bezala, baita armaz ere, haren zapalkuntza arintzeko jarkitzen direlako.

ANDEREÑOAK: Biok daukazue arrazoia...

JOSUK: Baina palestinarrei ezin diegu terroristak deitu...

ANDEREÑOAK: Simetriaren arabera, bederen, israeldarrei izendapen bera ezarriz gero, biek mereziko lukete deitura...

JOSUK: Edo inork ez!

MIRENEK: Baina Israelen demokrazia badago, egon.

ANDEREÑOAK: Egia esanda, Palestinan ere hauteskundeak burutu zituzten baina palestinarrek aukeratu zituztenak ez dituzte errespetatu ez Israelek, ez Europak, ez Amerikako Estatu Batuek ez eta bertako palestinar askok ere...

JOSUK: Ez da horren urrutira joan beharrik... galdetu bestela Nafarroan edota Onda-  
rroan, esaterako...

ANDEREÑOAK: Beraz, demokrazia-ezak ahalbideratzen du beste mota bateko erantzunik, baita bortitzenak ere...

JOXEK: Hor behintzat ez dut ikusten ez berrikuntzarik ezta berritasunik ere...

ANDEREÑOAK: Arrazoi duzu baina ez da zalantzarik irailaren hamaikak mundu osora egoera berri bat ekarri zuela esatean.

MIRENEK: Eta mundu berri horretan nolakoa izango da elkarbizitza?

ANDEREÑOAK: Hori da galdera hori!. Shakespearek asmatuiko Hamletek bere buruari itaundu zionean: izan ala ez izan?; funtsezko galdera bat paratu zuen bezala, zurean, gurean, ezin taxuzko ebazpenik eman zeren galdera egin ahal izatean baita funtsa. Izan ala ez izan dugu heriotzaren nahiz bizitzaren aurrean gizaki orok egin ohi dugun galdera. Eta hala herriek nola nazioek ere ez dute inoiz kontzientzia gehiagorik eskuratzen ez eta borroka handiagorik egiten galdera hori egitea debekatzen dietenean baino. Galdera tragikoa, pertsona zein kulturentzat, hil ala bizikoa...

MIRENEK: Ez al dago, bada, erantzuna jakiterik?

ANDEREÑOAK: Ezin da jakin, borondatezkoa edo gogozkoa baita galdera eta adimenak ezin dio horri irtenbiderik eman.

JOXEK: Hori al da arazoa?

ANDEREÑOAK: Ez, hori ez da arazoa, galdetikizuna baizik. Hamlet ez zen existitu, fikziozko pertsonaia da, eta galdetzen duen horri berak bakarrik erantzun diezaioke...

JOXEK: Eta bere buruari galdetzea ere galaraziko baliote...

ANDEREÑOAK: Hor has daiteke arazoa...

MIRENEK: Eta arazoa konpontzeko...

ANDEREÑOAK: Norberari galderak egiten, erantzuten, erabakitzen uztean eta gauzatzeko bermeak eman ahal izatean datza, jakina.

JOSUK: Hamaika ikusteko jaioak gara!

ANDEREÑOAK: Beno, nik alde egin behar dut.

JOXEK: Berriro bakarrik geldituko al gara?

ANDEREÑOAK: Laster da etxera joateko garaia eta norbait etorriko da zuen bila.

MIRENEK: Agur andereño.

JOXEK eta JOSUK: Gero arte Artizarne.

(...)

IRAKASLEAK: Kaixo neska-mutilak. Nahiz eta zigorturik egon, gainerakoei bezala, etxeratzeko sasoia heldu zaizue. Jaso zuen gauzak, jantzi berokiak eta zoazte jaisteko ate nagusira.

JOXEK: Artizarne berriro etorriko al da?

IRAKASLEAK: Zein Artizarne diozu? Izen hori ez da existitzen, edo nik horrelako izenik duen inor ez dut ezagutzen, behintzat...

JOSUK: Eta hona etorri zaigun andereño berria?

IRAKASLEAK: Ez ibili berriro bazterrak nahasten, arren. Niri ez didazue ziririk sartuko. Zuek gelatik kanporatuak izan zarete eta goiza bakarrik pasatu duzue hemen. Zuengana, nik dakidala, ez da inor etorri. Eta gainera, zernolako izena asmatu duzue... Artizarne! Norbait Venus deitu al daiteke egun?... Isildu eta joan zaitezte jaisten ateraino zeuen etxeetara joaten hasteko. Hurrengoan, bestela, zigorraren berri eman behar izango diet zuen gurasoei.

*“ Idaztera eseriko naiz, zer idatziko dut?  
Zertarako balio du nire hitzak?  
Zertarako balio dute nire senideek, nire  
herriak, nire nazioak?  
Zein nazkagarria naizen idaztera eseri  
naizenean!  
Hitzak nire herria babestuko al du?  
Hitzak nire herria salbatuko al du?  
Gaur hitz oro gatz da, gau honetan  
Ezer ernetzen ezta loratzen ez duen gatz...”*

**Fawà Tùqán ( Nablús)**